



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko irailaren 15a

61 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru Lege Proiektuak:**

—Turismoaren inguruko disziplinari buruzko Foru Lege proiektua (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak eta Mozioak:**

—Mozioa, pentsioak KPIaren gehikuntzaren adinako kopuruan birbalio ditzan nazioko Gobernuia premiatuz, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua (9. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- A-15 eta A-68 autobideei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (10. or.).
- Nafarroako Ingurugiro Kontzeiluari eta berari Foru Agindu batek sorturiko egoerari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (11. or.).
- Errioxako Autonomia Erkidegoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin “Rioja” Jatorri Izendapenaren eta honen Kontseilu Arauemailearen gainean eduki beharreko lankidetzaz-hitzarmenari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (11. or.).
- Ubide eta malkarren garbiketarekin zerikusia daukaten Ingurugiro Departamentuaren jarduketaz batzuei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (12. or.).
- Estatuko Gobernuak Funtzio Publikoari buruzko Oinarrizko Estatutuaren proiektua egiteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Eusko Jaurlaritzak zirkulazioa arautzeko onartutako neurri bereziei eta gure Komunitatean izango duten eraginari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Kamioiak jaiegunetan ibiltzeari buruzko neurriak hartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Huarte enpresak Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

- Azkoiengo saihesbide berria esleitzeko eta eraikitzeko prozesuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 96034-0 zenbakia duen aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Errioxako Autonomi Elkartearekin eta Insaludekin izenpetzeko lankidetz-hitzaermen proiektuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Nafarroako Ospitaleko larrialdi-kirofanoen erabilgarritasunari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Otsagabia eta Errokariko naturaren interpretazio zentroen kudeaketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Sarriako Jaurerrian dagoen ehiza-hesiari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Sarriako Jaurerriko ehiza-barrutia isteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Cortes ondoko Gallurren hondakin likido pozoitsu eta arriskugarrientzako errauskailua jartzearen ingurugiro eraginari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Fiteroko monastegiko liburutegi zaharraren hondamenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- “Clara Programa”ren merkataritza sustapenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).

**G SAILA:****Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoen erdi mailako teknikari-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (36. or.).

---

**A Saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Turismoaren inguruko disziplinari buruzko Foru Lege proiektua**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 9an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1997ko apirilaren 1ean hartutako Erabakiaren bidez, Turismoaren inguruko disziplinari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**Lehena.-** Turismoaren inguruko disziplinari buruzko Foru Lege proiektua ohiko jardunbidez bideratzea.

**Bigarrena.-** Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordearen esku uztea.

**Hirugarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost laneguneko epea irekiko da, 1997ko urriaren 3ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1997ko irailaren 10a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **Turismoaren inguruko disziplinari buruzko Foru Lege proiektua**

### **ZIOEN ADIERAZPENA**

Azken urteotan, Nafarroa nabarmen garatu da turismo toki gisa. Garapen hori sendotzeko, ezinbestekoa da kalitatezko turismo zerbitzu eta insta-

lazioak eskaintzea. Horregatik, beharrezkoa da turismo instalazio eta zerbitzuen kalitate maila hobetzeko zenbait neurri hartzea, besteak beste Foru Komunitateko Administrazioari ikuskatzeko eta zehatzeko baliabide batzuk eskaintzea, turismo arloko arauak betetzen direla bermatzeko.

Konstituzioaren 25.1. artikulua, Konstituzio Auzitegiak horretaz egin duen interpretazioak eta Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ongi finkatu dituzte zehatzeko zuzenbide administratiboaren printzipioak.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.13 artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak turismoa sustatu eta antolatzeko eskumen eskusiboa bereganatu du.

Honako Foru Lege hau legekotatasunaren printzipioa eta zehatzeko zuzenbidearen oinarrian egon behar duten gainerako printzipioak hertsiki errespetatuz prestatu da, Nafarroak turismo arloan dituen eskumenen babesean.

Foru Legearen hasieran xedea eta aplikazio esparrua finkatu dira eta, ondoren, lehendabizi, turismo arloko ikuskapena arautzen da, eginkizun espezializatu gisa, eta eginkizun hori egoki betetzeko behar diren baliabide juridikoak eskaintzen dira. Bigarrenik, zehatu daitezkeen jokabideak zehaztu eta sailkatzen dira, dagozkien zehapenak finkatuz eta jarraitu beharreko zehapen prozedura arautuz.

### **I. KAPITULUA**

#### **Xedea eta aplikazio esparrua**

##### **1. artikulua. Xedea.**

Foru Lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitatean turismo arloa ikuskatzeko jarduera arautzea, arau-haustek tipifikatzea, administrazio zehapenak finkatzea eta segitu beharreko zehapen prozedura zehaztea.

**2. artikulua.** Aplikazio esparrua.

Foru Lege hau aplikatuko zaie Nafarroako Foru Komunitatean kokaturiko turismo enpresa edo establezimenduen titularrak diren pertsona fisiko eta juridikoei eta turismo arloko jardueretan gure lurraldean aritzen direnei.

**3. artikulua.** Bide administratiboan erantzule diren subjektuak.

1. Turismo arloan egiten diren arau-hausteen erantzule administrazioaren aurrean izanen dira turismo enpresa, establezimendu edo jardueraren titularrak diren pertsona fisiko eta juridikoak. Bestetik egiaztatu ezean, aginduzko lizentzia edo baimenean agertzen dena izanen da titularra. Lanbide edo jardueran aritzeko aginduzkoa den administrazio gaikuntzarik ez izateagatik arau-hausteen erantzulea jarduera horretan aritzen den pertsona fisiko edo juridikoa izanen da.

2. Turismo enpresa eta jardueren titularrak administrazioaren aurrean erantzule izanen dira enpresa edo jarduerari atxikita dagoen edonork egiten dituen arau-hausteengatik, baina deusetan galarazi gabe, kaltearen ordainez, arau-haustea egiten duten pertsonen aurka zuzenbidearen araberaz zilegi diren ekintzak.

## II. KAPITULUA

### Turismo arloko ikuskapena

**4. artikulua.** Turismo Ikuskatzailletza.

1. Turismo Ikuskatzailletzak, turismo arloko eskumena duen organoaren menpean, honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Turismo arloan indarra duten xedapenak betetzen ote diren begiratzea eta egiaztatzea eta behar diren txostenak egitea.

b) Hala erabiltzaileen erreklamazio edo salaketa dagoenean, nola ustez arau-haustea edo irregularitasuna izan delako ohartarazpena dagoenean, egintza horiek egiaztatzea.

c) Azpiegitura eta enpresen funtzionamendurako behar diren baldintzei buruzko aholkularitza ematea eta txostenak egitea eta diruz laguntzen diren inbertsioen segimendua egitea.

2. Turismo Ikuskatzailletzari atxikitako funtzionarioak, dagozkien eginkizunetan aritzen direnean, agintaritzaren agente gisa arituko dira eta indarra duen arautegiak haiei eskaintzen dizkien babes eta eskumenak izanen dituzte. Lana hobeki egiteko beharrezkoa dela irizten dutenean, beste administrazio edo erakunde publikoetako langile eta zerbitzuen laguntza eskatu ahalko dute.

3. Ikuskatzaileek behar den kreditazioa izanen dute, lanean ari diren guztietan erakutsi beharko dutena.

4. Ikuskapen lana, beti ere, isilpekoa izanen da. Hortaz, ikuskatzaileak beharturik daude sekretu profesionala zorrozki betetzera.

**5. artikulua.** Laguntzeko betebeharra.

1. Turismo enpresa eta jardueren titularrak edo ikuskapena egiten den unean haien kargu dauden pertsonak beharturik daude lanean ari diren turismo ikuskatzailletzako langileei laguntzera, turismo jarduerari dagozkion eraikinak, instalazioak, agiriak, liburuak eta erregistroak ikusi eta azter ditzaten.

2. Ikuskatzaileak beharrezkotzat hartzen duenean, jarduketan barruan, ahalmena izanen du interesatuei eskatzeko Turismo Ikuskatzailletzaren bulegoetan ager daitezen, kasuan kasuko zitazioan adierazten denaren ondorioetarako.

3. Turismo jardueretan aritzen diren establezimendu guztietan bisita liburu bat izan beharko dute, behar bezala eginbidetua, turismo ikuskatzailletzako funtzionarioen eskura, eta bertan agertuko dira egin diren ikuskapenak eta horien ingurubarrak.

4. Ikuskapen zerbitzuek eskatu ahalko diete erakunde ofizial, lanbide erakunde eta kontsumitzaileen elkarteei beren lana egoki egiteko behar duten informazioa eskain diezaien.

**6. artikulua.** Ikuskapen aktak.

1. Ikuskapenean jasotakoa akta batean bilduko da, ikuskatzaileak berak eta ikuskapena egin den turismo enpresa edo establezimenduko titularrak edo horren ordezkari legalak, edo horiek ezean, une horretan enpresa edo jardueraren kargu dagoen pertsonak sinatu beharko dutena eta kopia bat hantxe geldituko da. Sinaduraren bidez aktaren eta bertan bildutakoaren berri badela egiaztatuko da baina ez du inolaz ere erakutsiko horrekiko adostasunik dagoenik. Aipatu pertsona horiek akta sinatzeari uko egiten badiote, ikuskatzaileak egoera hori aktan bildu beharko du, horretarako ematen duten arrazoiekin batera, behar den eginbidearen bitartez.

2. Turismo Ikuskatzailletzak bere eskumeneko jardueretan egiten dituen aktetan agertzen diren egintzak egiaztat hartuko dira administrazio bidean, kontrakoa frogatu ezean.

## III. KAPITULUA

### Arau-haustek

**7. artikulua.** Arau-haustek.

1. Turismo arloko arau-hauste administratibo-

tzat hartuko dira Foru Lege honetan tipifikatu eta zehaturik dauden egintza eta ez-egite guztiak.

2. Egiten diren arau-hausteen ondorioz administrazioaren aurrean dagokion erantzukizuna sortuko da, zeini behar den espedientea izapidatu ondotik aurre egin beharko zaion.

3. Administrazioaren iritziz, arau-haustek hutsegite edo delitutzat har daitezkeenean, administrazio organoak Ministerio Fiskalari igorriko dio kasua eta zehapen prozedurarekin aurrera egiteari uko egingen dio, agintari judizialek erantzuna eman arte. Zehapen penala izanez gero, administrazio zehapena jartzerik ez da izanen. Delitu edo hutsegiterik ez dagoela iritziz gero, Administrazioak hasierako zehapen espedienteari jarraipena eman diezaioke, eskumena duen jurisdikzioak frogatuzat jotzen dituen egintzetan oinarrituz.

#### **8. artikulua.** Arau-hauste motak.

Turismo arloko administrazio arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

#### **9. artikulua.** Arau-hauste arinak.

Honako hauek dira arau-hauste arinak:

1. Kontrataturiko zerbitzuetan akatsak egitea, zerbitzuen izaera eta hitzarturiko baldintzen arabera.

2. Turismo establezimenduetako lokal, instalazio, altzari edo tresnen mantenimendu eta funtzionamenduan akatsak izatea.

3. Erabiltzailearekiko tratua zuzena ez izatea.

4. Turismo arloan eskumena duen Administrazioari jakinarazitakoa edo baimenduta dagoena baino gehiago kobratzea zerbitzuren batengatik, non ez den jakinarazi edo iragarritakoaren % 50 baino gehiago, edo ez den betetzen prezioen gainean indarra duten xedapenetan adierazitakoa.

5. Eskatu ez den edo agerian ez dagoen prestazioren baten kostua prezioan sartzea erabiltzaileari adierazi gabe.

6. Eskatu ez diren zerbitzu edo ondasunak erabili edo kontsumitzera behartzea.

7. Establezimenduaren titularraren edo prezioen aldaketari buruz edo, turismo arloko arauen arabera, jakinarazi beharreko bestelako informazioei buruzko ohartarazpen edo jakinarazpenik ez izortzea.

8. Erabiltzailearen babesa bermatzeko asmoz eta enpresa, instalazio edo zerbitzuaren araubide eta funtzionamendu egokia izan dadin, kontratazio, dokumentazio, fakturazio, informazio, liburu eta erregistroen gainean ezarrita dauden derrigorrezko arauak ez betetzea.

9. Egindako kontratua eteteko edo eman beharreko zerbitzua bertan behera uzteko arauak ez betetzea.

10. Erreklamazio-orririk ez izatea edo, eskatzen direnean, atera nahi ez izatea.

11. Bezeroak turismo enpresarekin duen harremana nolakoa den kreditatzeko agiriak eta legez emandako fakturak haren esku jarri nahi ez izatea.

12. Erregelamenduaren arabera establezimenduetan ageri beharreko adierazgarriak ez izatea edo eskatu bezala ez paratzea.

13. Produktu eta zerbitzuen eta horien prezioen publizitatea arautzen duten xedapenak ez betetzea.

14. Zerbitzuen prestazioaren inguruko ezaugarri partikularrei publizitaterik ez ematea.

15. Orohar, turismo arloko arauetan ezarritako baldintzak, beharkizunak eta debekuak ez betetzea, arau-hauste larri edo oso larritzat hartzerik ez dagoenean.

#### **10. artikulua.** Arau-hauste larriak.

Hauek dira arau-hauste larriak:

1. Turismo zerbitzu edo jardueraren bat eskaintzea edo horretan aritzea, indarra duten arauen arabera horretarako behar den aginduzko baimena edo titulazioa izan gabe.

2. Turismo jarduera batean aritzeko edo hura sailkatzeko behar den baimen, titulu, lizentzia, jakinarazpen edo gaikuntza luzatzeko eskatzen diren baldintza edo beharkizunak ez betetzea edo aldatzea.

3. Jardueraren sailkapenaren arabera dagozkion izen, errotulu edo adierazgarrien orde, beste batzuk erabiltzea.

4. Establezimenduaren egitura, edukiera edo ezaugarriak Administrazioaren baimenik gabe aldatzea, hori aginduzkoa den kasuetan.

5. Kontrataturiko zerbitzuren bat ez ematea edo hitzartu ziren kalitate, kantitate edo izaeraren inguruko baldintzak ez betetzea.

6. Sarrera librea ez izatea edo bezeroren bat egozte, justifikaziorik gabe.

7. Turismo arloan eskumena duen Administrazioari jakinarazitakoa edo iragarrita dagoena baino gehiago kobratzea zerbitzuren batengatik, jakinarazi edo iragarritakoaren % 50 baino gehiago baldin bada.

8. Turismo Ikuskatzailetzaren edo eskumena duten beste organo administratibo batzuen jarduna ez onartzea edo trabak jartzea.

9. Turismo jardueretan eskaintzen diren zerbitzu eta prestazioen oinarrizko elementuen inguruan, nahasmendura eraman edo iruzur zantzuak dituen publizitatea agertzea.

10. Plazen erreserbari dagokionez, zerbitzua behar bezala ez ematea, dagozkion plazak baino gehiago kontratatu izateagatik.

11. Turismoko administrazioak azpiegituretan edo funtzionemenduan antzemandako akatsak zuzentzeko emandako epeak ez betetzea.

12. Turismo arloko arauak eskatzen duten kapital sozialaren zenbatekoa, aseguruak bermeak edo fidantzak ez mantentzea.

13. Turismo kanpalekuetan kanpinzale egonkor edo bertan bizi direnak onartzea eta debekaturik dauden kanpin unitateak ezartzen uztea.

14. Turismo establezimenduetan suteei aurrea hartzeari eta bertako segurtasunari buruzko arautegia haustea alderdi ez-funtsezkoaren batean.

15. Turismo zerbitzuak emateko, legez gaiturik ez dauden toki, lokal, ibilgailu edo pertsonak erabiltzea edo, horretarako gaiturik egonda ere, erabiltzetik utziak egotea.

16. Informazio ez-zehatza edo dokumentazio faltsua aurkeztea.

**11. artikulua.** Arau-hauste oso larriak.

Hauek dira arau-hauste oso larriak:

1. Turismo jardueraren batean ezkutuan edo arautegia larriki hautsiz aritzea.

2. Turismo establezimenduetan suteei aurrea hartzeari eta bertako segurtasunari buruzko arautegia funtsezko alderdiren batean haustea.

3. Turismo jardueraren bat eraiki, ireki edo bertan aritzeko behar diren baimen, titulu, lizentzia edo gaikuntzak emateko funtsezko baldintzak iruzur egin asmoz aldatzea.

4. Arau-hauste larriak behin baino gehiagotan egitea.

5. Horiez gain, arau-hauste oso larritzat hartuko dira arau-hauste larri gisa tipifikatuak, honako inguruabarren bat gertatzen denean:

a) Egindakoaren edo ez-egitezko jokabidearen ondorioz, kalte handia eragitea Nafarroako interes turistikoiei, kasuan kasuko turismo lanbide edo jardueraren izen onari edo, orohar, bezeroei.

b) Arau-haustearen egintzan edo ez-egitezko jokabide horretan asmo txar, makurkeria edo utzi-keria nabarmena antzematea.

**12. artikulua.** Adiskidetzeak eta konponketak.

Zehapen espedienteak izapidatu aurretik edo horren bitartean, aukera emanen zaio ustezko arau-haustearen egileari eragindako kalteak konpon ditzan edo administrazio irregulartasunak zuzentzeko.

Turismo zerbitzua eskaintzen duten enpresek kontsumitzaile eta erabiltzaileei eragindako kalteak konpontzeko borondatezko adiskidetze-egintza egin ahalko da, bakar-bakarrik, interes partikularra nagusi den erreklamazioetan eta interes hori kuantifikagarria baldin bada.

Borondatezko adiskidetzearen ondorio berberak izanzen ditu bi alderdiak Kontsumoko Arbitraje Sistemaren menpean jartzeak.

Administrazio irregulartasunak konpontzea onartuko da bakarrik, arau-haustearen garrantzia eta eragindako kaltea ikusita, bidezkoa denean.

Adiskidetzea eta kalteen konponketa izanez gero, jarduketak artxibatu edo arau-haustearen kalifikazioa jaitsiko dira.

#### IV. KAPITULUA Zehapenak

**13. artikulua.** Zehapenak.

Foru Lege honetan eta turismo arloko gainerako xedapenetan zehaztutakoaren aurkako arau-hausteen ondorioz, honako zehapen hauek jarriko dira:

a) Ohartarazpena.

b) Isuna.

c) Turismo jardueretan aritzeko ezgaitzea edo establezimendua ixtea urte batez, gehienez.

d) Titulua edo baimena bertan behera uztea edo establezimendua ixtea.

**14. artikulua.** Arau-hausteak eta zehapenak.

1. Arau-hausteei honako zehapenak dagozkie:

a) Arau-hauste arinengatik, ohartarazpena edo 100.000 pezeta bitarteko isuna jarriko da.

b) Arau-hauste larriengatik, 500.000 pezeta bitarteko isuna jarriko da.

c) Arau-hauste oso larriengatik, 5.000.000 pezeta bitarteko isuna jarriko da.

2. Zehapen nagusi gisa edo osagarri gisa instalazioa edo establezimendua ixtea edo jarduera etetea ere erabaki daiteke, sei hilabeteko epera arte



arau-hauste larriak direnean, eta sei hilabetetik urte batera arte, arau-hauste oso larriak direnean.

3. Titulua edo baimena bertan behera uztea eta establezimendua behin betikoz ixtea ere erabaki daiteke, arau-hauste oso larriak behin baino gehiagotan egiten direnean.

Jarduera bertan behera uzteko edo establezimendua ixteko erabakiaren berri bertako Udalari emanen zaio eta hango agintaritzako delegatuen laguntza ere eska daiteke, erabakia betearazteko.

4. Arau-hauste larri edo oso larriak egiten direnean, zehapen osagarri gisa, erabaki ahalko da arau-haustea egin duen pertsonari, zehapenaren xede den jardueran aritzeko, Nafarroako Foru Komunitateari eskatu eta handik jaso dituen dirulaguntza edo laguntza finantzario guztiak kentzea edo etetea.

5. Jardueran aritzeko eskaera izapidatze-aldian baldin badago, ez da zehapentzat hartuko aginduzko baimena ez izateagatik erabaki litekeen establezimenduaren edo instalazioen itxiera, indarra duten arauekin bat, ez eta baimena lortu artean erabaki litekeen jardueraren funtzionamenduaren etetea ere. Establezimenduaren itxiera edo funtzionamenduaren etetea turismo arloan eskumena duen zuzendari nagusiak erabakiko du, interesatuari entzutea eman ondoren. Erabaki hori har daiteke deusetan galarazi gabe dagokion zehapen espedientea irekitzea.

**15. artikulua.** Zehapenen graduazioa.

Zehapenak jarriko dira kontuan harturik administrazio arau-haustea egin zenean gertatu ziren inguruabarrak eta, batez ere, honako hauek:

- a) Ukitutakoei eragindako kalteak.
- b) Ukituriko pertsona kopurua.
- c) Legez kontra lorturiko onuraren zenbatekoa.
- d) Enpresaren ahalmen ekonomikoa.
- e) Turismo sektoreari eta Nafarroako irudi turistikoari eragindako ondorio negatiboak.
- f) Arau-hausteen berregiteak.
- g) Prozedura hastea ekarri zuten irregulartasunak espedientearen izapidatze-aldian konpontzen ote diren.

**16. artikulua.** Berregiteak.

Foru Lege honen ondorioetarako, berregitea izanen da arau-haustearen erantzulea, administrazio bidetik ebazpen irmoaren bidez, hutsegite berbera dela kausa, urte bateko epean bi aldiz zehatu denean, lehenbiziko hutsegitea egin zenean kontaktatzen hasita, edo hutsegite ezberdinak direnean, hiru aldiz urte bateko epean.

**17. artikulua.** Behartzeko isunak.

Aurreko artikuluetan zehaztu isunak gorabehera, jarduera edo establezimendua arauetan ezarritakoari egokitzeko errekerimenduan adierazi epeak amaiturik, zehapena igorri duten organoek behartzeko isunak ezar ditzakete, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 99. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Isun horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izanen egindako arau-haustearengatik jarritako isunaren % 20 baino handiagoa.

**18. artikulua.** Eskumena.

Foru Lege honetan finkaturiko zehapenak ezartzeko eskumena honako hauek dute:

1. Turismo arloan eskumena duen zuzendari nagusia, arau-hauste arin edo larriak direnean.
2. Arlo horretan eskumena duen kontseilaria, arau-haustea oso larriak direnean.
3. Nafarroako Gobernua, establezimendua ixtea ekartzen duten arau-hauste oso larriak direnean.

## V. KAPITULUA Preskripzioa eta iraungipena.

**19. artikulua.** Preskripzioa.

1. Foru Lege honetan aurreikusitako arau-hauste oso larriak bi urteren buruan preskribituko dira, urte baten buruan larriak eta sei hilabetera arinak.

Arau-haustea preskribitzeko epea hutsegitea egin zen egunetik aurrera kontaktatzen hasiko da.

Preskripzioa eten eginen da dagokion zehapen espedientea irekitzen denean, interesatuak horren berri izanik.

Titularrari betiko beharkizun bat ekartzen dioten arau-haustea ez dira preskribituko.

2. Hutsegite oso larriengatik jarritako zehapenak hiru urteren buruan preskribituko dira, hutsegite larriengatik jarritakoak bi urteren buruan eta hutsegite arinengatik urte batera.

Zehapenak preskribitzeko epea zehapena jarritako ebazpena irmo bilakatu eta biharamunetik aurrera kontaktatzen hasiko da.

Preskripzioaldia eten eginen da exekuzio prozedurari hasiera ematen zaion momentuan, interesatua jakinaren gainean egonda.

**20. artikulua.** Iraungipena.

Zehapen prozedura hasi eta hiru hilabeteko epearen barruan salatutakoari horren jakinarazpena egiten ez bazaio, jarduketak artxibatuko dira.

Era berean, izapidatze-aldi baten jakinarazpena interesatuari egin eta hiru hilabeteko epearen barruan, Administrazioari egotzi beharreko arrazoiengatik, hurrengo aldiari ekiten ez bazaio, jarduketak artxibatuko dira.

Halaber, jarduketak artxibatuko dira, interesa-tuak eskatuta edo ebazpena emateko eskumena duen organoak ofizioz erabakita, ebazpena emateko epea amaitu eta hogeita hamar egun igarota.

Jarduketak artxibatzen badira, salatutakoari jakinarazi beharko zaio.

## **VII. KAPITULUA** **Zehapen prozedura**

### **21. artikulua.** Hasiera.

1. Turismo arloko zehapen prozedura, eskumena duen organoak harturiko erabakiaren bidez, ofizioz hasiko da jarduketa hauetariko edozeinen ondorioz:

a) Turismo ikuskatzaitzak egindako akten ondorioz.

b) Agintaritzak edo administrazio organo batek, ustezko arau-hauste baten berri izanik, egindako jakinarazpenaren ondorioz.

c) Turismo establezimenduetako erreklamazio orrietan jasotako kexa edo salaketen ondorioz.

d) Indarra duten prozedurari buruzko arauak ezartzen dutenari jarraikiz, egindako erreklamazio baten ondorioz.

e) Legez eraturiko elkarteren batek sarturiko salaketaren ondorioz.

f) Turismo arloan eskumena duen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio organo eskudunaren beraren ekinbidez, ustezko arau-hauste baten berri duenean, zernahiren bitartez.

2. Espedientea hasi aurretik gertatutakoa argitzeko informazioa biltzea agindu daiteke. Egindako jarduketak ikusirik eta gertatutakoa azterturik, arau-haustearen zantzuak ote direnentz erabakiko da eta, bidezko denean, zehapen prozedura irekiko. Prozedura izapidatzeko, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen IX. tituluaren II. kapituluaren bildutako irizpideei jarraikiko zaie.

### **22. artikulua.** Aurreneurriak.

1. Salbuespen gisa, segurtasun arrazoiengatik beharrezkoa denean, turismo zerbitzuaren erabil-

tzailearen interes ekonomikoentzako arrisku larria dagoenean edo Nafarroako irudi turistikoarendako kalte larria eta benetakoa etor daitekeenean, establezimendua berehala ixtea edo instalazioak prezintatzea erabaki ahalko da, aurreneurri gisa, akatsak zuzentzeko behar den denborarako eta, gehienez ere, espedientea ebatzi arte.

2. Espedientea irekitzeko eskumena duen agintaritzak aurreneurri horiek hartzeko esku ere izanen du, ebazpen arrazoituaren bidez, interesatuari entzutea eman ondoren.

### **23. artikulua.** Zehapenak betetzea.

Foru Lege honetan xedatutakoaren babesean ezartzen diren zehapenak administrazio bideari amaiera ematen diotenean berehala betearazi beharko dira, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen xedatutakoari jarraikiz.

Zehapen prozeduraren ebazpenen aurka Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen VII. Tituluaren II. kapituluaren xedatutakoari jarraikiz bidezko diren helegiteak jarri ahalko dira.

### **24. artikulua.** Zehapenen erregistroa.

Turismo arloan eskumena duen departamentuan zehapenen erregistro bat irekiko da, Foru Lege hau hausteagatik ezartzen diren zehapen irmoen idazpenak hartuko dituen. Idazpen horiek balioa galduko dute erregistratu eta urte batera.

## **Xedapen Iragankorra**

Lege honek indarra hartzen duen egunean irekita dauden espedienteak izapidatu eta ebatziko dira hasiera eman zitzaienean indarra zuten xedapenen arabera.

## **Azken Xedapenak**

**Lehena.** Foru Lege honetan aurreikusten diren zehapenen zenbatekoak berrikusi eta eguneratu ahalko dira Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontuen legeetan.

**Bigarrena.** Ahalmena ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta turismo arloan eskumena duen kontseilariari Foru Lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

**Hirugarrena.** Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta egun berean hartuko du indarra.



---

**E Saila:**  
**JABELDURAK ETA MOZIOAK**

---

## **Mozioa, pentsioak KPIaren gehikuntzaren adinako kopuruan birbalio ditzan nazioko Gobernuak premiatuz**

### *«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak pentsioak KPIaren gehikuntzaren adinako kopuruan birbalio ditzan nazioko Gobernuak premiatuz aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietako emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidaren lehenengo bilkura-eguneko eguerdiko hamaiki baino lehen.

Iruñean, 1997ko irailaren 10a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **MOZIOAREN EDUKIA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeak, Parlamentuko Erregelamenduko 192. artikulua xedatutakoaren babesean, honako mozioa aurkezten du:

Uztailaren 15eko 24/1997 Legeak, Gizarte Segurantzako Sistema bateratzeari eta arrazionalizatzeari buruzkoak, 11. artikuluan ezartzen due-

nez, Kontsumorako Prezio Indizearen bilakaeraren arabera birbalioetako dira urtero pentsioak.

Printzipio honi jarraituz, legegileak Kontsumorako Prezio Indize errealearen gaitetik egindako birbalioketak xurgatzea aurreikusi du, KPIa urtehasieran Gobernuak aurreikusitakoa baino baxuagoa izan den kasuetan.

Pentsioen erosketa-ahalmenarekin bateragarria den xurgaketa hau ez da, ordea, solidarioa pentsiodunekin, bereziki pentsiorik baxuenak hartzen dituztenekin, ezin baitiete onurarik atera ekonomiak eragiten dituen aberastasun-gehikuntzei.

Ondorioz, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeak honako mozio hau aurkezten du:

Baldin eta 1997ko pentsioei dagokien urteroko birbalioketa egiteko Gobernuak aurreikusitako Kontsumorako Prezio-Indizea beronek pairatutako benetako birbalioketa baino haundiagoa balitz, aldea hurrengo urterako aplikatu beharreko birbalioketan xurgatua izan ez dadin premiatzen du Nafarroako Parlamentuak Nazioko Gobernuak.

Iruñea, 1997ko irailaren 3a

Bozeramalea: Manuel López Mazuelas

---

**F Saila:**  
**GALDERAK**

---

## **A-15 eta A-68 autobideei buruzko galdera**

*MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 9an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak A-15 eta A-68 autobideei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 10a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Martín Landa Marco, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari Jaunak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Irailaren 1eko datarekin, indarrean sartu berri da Espainiako Gobernuak autobideetako bidesariaren gaineko BEZa %16tik %7ra jaisteko onetsi duen murrizketa.

Helburu berberarekin -alegia, autobideetako bidesarien kostua murriztea-, Nafarroako Gobernuak behin baino gehiagotan adierazi du Espainiako Gobernuak hartutako erabakiaren zain zegoela Audenasa-rekin (Nafarroako autobidearen kasuan) eta dagokionarekin (A-68aren kasuan; zati hau N-232arekiko paraleloa da, eta,

Herrilan Kontseilariaren arabera, aipaturiko errepi-dea destolestea beharrezkoa ez izatea eragingo luke) negoziatzen hasteko.

Lehen premisa, alegia, Espainiako Gobernuak eginiko murrizketa, bete da.

Horregatik guztiagatik zera jakin nahi da:

1.- Zer negoziazio antolatu dituen edo antolatzeko asmoa duen Nafarroako Gobernuak, aipaturiko bidesariak murrizteko A-15 eta A-68an; bigarren honetan, Nafarroako zatiari dagokionez.

2.- Zer egoeratan dagoen Tafallako bidesari-kobrantarako garitak kentzeko konpromisoa eta noizko izango den eraginkorra.

3.- Negoziazio horietan zer irizpide ari den erabiltzen Nafarroako Gobernuak bidesarien prezioak jaistea lortzeko; A-15aren kasuan, emakidaren luzapenari dagokionez (urteak, murrizketaren %a eta abar). Eta zeintzuk A-68aren kasuan (negoziazioak oraindik ez baldin badira hasi, horri buruzko aurreikuspena).

4.- Bi kasu horietakoren (A-15 eta A-68) batean Nafarroako Gobernuak ez baldin badu arrakastarik bidesarien prezioa nabarmenki jaisteko ahalleginean, zer neurri hartzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak?

Iruñea, 1997ko irailaren 1a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

## **Nafarroako Ingurugiro Kontzeiluari eta berari Foru Agindu batek sorturiko egoerari buruzko galdera**

*MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 9an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Ingurugiro Kontzeiluari eta berari Foru Agindu batek sorturiko egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 10a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Martín Landa Marco, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari Jaunak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Berriki, hainbat talde ekologistak Nafarroako Ingurugiro Kontseiluan sorturiko egoera salatu du, Nafarroako Gobernuak "Nafarroako Ingurugiro

Kontseiluak berak onetsirikoa kontutan hartu gabe" onetsitako Foru Agindu bat dela-eta.

Horregatik guztiagatik, zera jakin nahi da:

1.- Zer irizpideren arabera erabaki duen Gobernuak Nafarroako Ingurugiro Kontseiluaren gehiengoak onetsirikoa gomendio eta proposamenak aintzat ez hartzea.

2.- Zer ekimen burutu dituen Gobernuak Ingurugiro Kontseilaritzaren bidez, baten bat egon baldin bada, Nafarroako Ingurugiro Kontseiluaren eta Departamentuko teknikarien irizpide ustez ezberdinak bateratzeko asmoz aipaturiko Foru Agindua onetsi aurretik.

3.- Zer-nolako funtsezko arrazoi direla-eta kendu dion aginpidea Ingurugiro Departamentuak modu horretan Nafarroako Ingurugiro Kontzeiluari, eta zer-nolako jarduketa burutzeko asmoa duen Kontseiluaren baitan sorturiko egoera xamurtzeko.

Iruñea, 1997ko irailaren 1a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

## **Errioxako Autonomia Erkidegoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin "Rioja" Jatorri Izendapenaren eta honen Kontseilu Arauemailearen gainean eduki beharreko lankidetzahitzarmenari buruzko galdera**

*MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 9an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Errioxako Autonomia Erkidegoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin "Rioja" Jatorri Izendapenaren eta honen Kontseilu Arauemailearen gainean eduki beharreko lankidetzahitzarmenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 10a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Martín Landa Marco, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari Jaunak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Deliberazio luzeen ondoren, Errioxak, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroako Foru Komunitateak Lankidetzahitzarmen baten proiektua finkatu zuten, "Rioja" kalifikaturiko jatorri-izendapenari eta bere Kontseilu Arauemaileari buruzkoa. Joan den urteko bigarren seihilabetekoan eta aurtengo lehenengoan zehar Nekazaritza eta

Landa Garapenerako Kontseilari bakoitzak sinatu behar zuen Proiektu bat landu zen.

Horregatik guztiagatik, zera jakin nahi da:

1.- Zer dela-eta aipatu Proiektua ez zaion Nafarroako Parlamentuari aurkeztu, haren berri eduki eta onetsi dezan.

2.- Zer-nolako problema eta zer garrantzikoak sortu diren, data honetan (97-9-2) konponduta ez egotea eta egoki den dokumentua egina ez egotea ere azal dezaketanak.

3.- Zein den hitzarmen horren egungo egoera, Nafarroako Gobernuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaritzari dagokionez, eta zeintzuk diren ebatzi beharreko funtsezko problemak Euskal Autonomia Erkidego, Errioxa eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzarako Hitzarmen hori, "Rioja" kalifikaturiko jatorri-izendapenari eta bere Kontseilu Arauemaileari buruzkoa, aurkitzen den geldialdi-egoerari irtenbide bat emateko.

Iruñea, 1997ko irailaren 2a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

## **Ubide eta malkarren garbiketarekin zerikusia daukaten Ingurugiro Departamentuaren jarduketa batzuei buruzko galdera**

*MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko irailaren 9an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak ubide eta malkarren garbiketarekin zerikusia daukaten Ingurugiro Departamentuaren jarduketa batzuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko irailaren 10a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Martín Landa Marco, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari Jaunak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Joan den irailaren 3an, Rafael Gurrea, Gobernuak Lehendakariorde jaunak eta Ángel Eraul, Nafarroako Nekazari eta Abeltzainen Batasuneko Lehendakari jaunak, Nafarroako hainbat herritan eragindako kalteak aztertu zituzten bilera batean;

batez ere, logikoa denez, nekazaritzari eragindako kalteak eta hauen ondorioak nola xamurtu.

Komunikabideen bitartez jakin ahal izan denez, Ingurugiro Departamentuaren "erruz" kalteak haundiagoak izan direla ondorioztatzen da, ingurugiro-arazoak direla-eta, ubideak eta malkarrak garbitzea debekatzen segitzen duelako.

Horregatik guztiagatik, zera jakin nahi da:

1.- Ubideak eta malkarrak garbitzeko zer jarduketa debekatu diren azken urtean, eskaera, beronen data, erantzuna eta honen arrazoiei buruzko datuekin.

2.- Debekuak egon baldin badira, Ingurugiro Departamentuak nola ebaluatzen dituen planteatu beharreko alternatibak, beharrezko joko balitu, eskaeran nolabaiteko arriskurik ikustekotan, hori ekiditeko.

3.- Zer jarduketa burutu eta zer neurri hartu duen Ingurugiro Departamentuak horrelako egozpenei aurre egiteko.

Iruñea, 1997ko irailaren 4a.

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

## **Estatuko Gobernuak Funtzio Publikoari buruzko Oinarrizko Estatutuaren proiektua egiteari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Estatuko Gobernuak Funtzio Publikoari buruzko Oinarrizko Estatutuaren proiektua egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 2ko 40. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 5a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Lehendakaritza eta Barne Kontseilariak, "Eusko Alkartasuna-Askotariko" Parlamentari Taldeari atxikiriko Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Estatuko Gobernuak Funtzio Publikoari buruzko Oinarrizko Estatutuaren proiektua egitearen inguruan egindako galdera dela-eta, honako erantzun hau igortzen dizu:

1. Nafarroako Gobernuak Funtzio Publikoaren Estatutu Proiektua deiturikoaren berri ba ote duen.

Nafarroako Gobernuak ezagutzen du Estatuko Gobernuak, dagokion konstituzio agindua betetzeko, prestatu duen Funtzio Publikoaren Oinarrizko Estatutu Proiektuaren zirriborroa.

2. Honen erredakzioan parte hartu duen edo Gobernu zentralak bere iritzia eskatu ote dion.

Funtzio Publikoaren Aldaketari buruzko neurriak ezarri zituen abuztuaren 2ko 30/1984 Legean xedatutakoa betetzeko, Estatuko Administrazioak, bere garaian, "Funtzio Publikoaren Koordinazio Batzordea" eratu zuen. Bertako partaide dira autonomi elkarte guztiak, estatuko ordezkariak gainera.

Estatuko Administrazioak batzorde horretako kide guztiei, Nafarroari barne, aipatu proiektu horren lehen zirriborroa eman zien, eta ondoko

lan bileretan Batzordeko kide guztiek zirriborro horren testua aztertu, berrikuntzak proposatu eta, behin adostu ondoren, berrikuntza horiek zirriborroan sartu dituzte.

3. Gobernu zentralarekin bileraren bat egin izan duen, bakarka nahiz Komunitate Autonomoetako beste gobernu batzuekin batera, aipatutako lege proiektua aztertzeko edo eztabaidatzeko.

Galdera horien erantzuna aurreko atalean dago.

4. Proiektuari darion filosofia orokorrarekin bat datorren.

Batzordeak erabilitako proiektuaren zirriborroak indarrean dagoen Funtzio Publikoaren Berrikuntzari buruzko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 2ko 30/1984 Legea teknikoki hobetu ditzaketzen zenbait berrikuntza dakartza administrazio zentralerako eta autonomi elkarteetako, Nafarroa kenduta. Horrek, dena den, ez du Nafarroa ezertan ukitzen, aipatu 30/84 legeak ukitzen ez zuen bezala, guk eskumen osoak dauzkagula gure funtzio publikoaren arloan eta gure Estatutua besterik delako.

5. Nafarroko Funtzio Publikoaren Estatutua balizko arau orokor honen arabera egokitu behar ote duen, eta hala bada, zehazki nola egin behar duen egokitzapena.

Estatuaren Gobernuak testu hori lege proiektu gisa onesten badu, Gorteetan izapidatu beharko da gero, Lege bihurtzeko. Une horretan Nafarroako Gobernuak haztatuko du hartu behar duen erabakia, eta Nafarroako Parlamentuan izapidatu beharko ditu behar diren legezko aldaketak, egoki iruditzen bazaizkio.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoean xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3an

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

## **Eusko Jaurlaritzak zirkulazioa arautzeko onartutako neurri bereziei eta gure Komunitatean izango duten eraginari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Eusko Jaurlaritzak zirkulazioa arautzeko onartutako neurri bereziei eta gure Komunitatean izango duten eraginari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 12ko 33. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 5a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Eusko Jaurlaritzak zirkulazioa arautzeko onartutako neurri bereziei eta gure Komunitatean izango duten eraginari buruz egindako galdera dela eta, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak ondoko erantzuna ematen dizu:

1.- Eusko Jaurlaritzak Nafarroako Gobernuari jakinarazi al zion ibilgailu astunen trafikoa murriztu nahi zuela Euskal Autonomi Elkarteke lurraldean? Zer bide erabili zuen? Noiz?

Eusko Jaurlaritzak ez zion Nafarroako Gobernuari inongo komunikazio formalik egin haren lurraldean ibilgailu astunen trafikoa murrizteari buruz zeukan asmoaz.

Nafarroako Gobernuak zeharbidez izan zuen neurriaren berri, Eusko Jaurlaritzaren Garraio Zuzendariak iragarri zuelako 1997ko otsailaren 6an eta 7an, Zafrañ, izan zen Garraio Zuzendari Nagusien Batzordearen bileran.

2.- Nafarroako Gobernuak kontrol neurririk ezarri al du aipatu neurriak gure Komunitatean izan dezakeen eragina jakin eta neurtu ahal izateko? Erantzuna baiezkkoa bada, Zer nolako neurriak? Noiztik?

Foruzaingoaren zerbitzua indartu egin da A-15 autobidean eta bereziki N-121-A errepidean, garraio astunaren trafikoa begiratu eta kontrolatzeko, 1997ko otsailaren 21ean ebazpena indarrean sartu zenetik. Ebazpen hori Eusko Jaurlaritzaren Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendariak eman

zuen, 1997ko martxoaren 26an, eta martxoaren 17ko EHAAren 52. zk.an argitaratu zen.

3.- Euskal Autonomi Elkarteke arauak ezarri duten debekua indarrean sartu baino lehen eta sartu ondoren zegoen kamioien trafiko-intentsitateari buruzko datuak ba al ditu Nafarroako Gobernuak? Baiezkoan, joan-etorriari buruzko datu alderatuak eskatzen dira Iruña-Frantzia eta Iruña-Gasteiz autobideetan, eta gure Komunitatea eta Frantziaren arteko muga zeharkatzeko dagoen gune bakoitzera doazen errepideetan.

N-121 errepideko EIBaren (eguneroko intentsitate batezbestekoa) datuen koadroa erantsi da.

4.- Nafarroako Gobernuak neurtu al du noraino eragingo dion aipatu arautegiak gure Komunitateko garraiolarien alorrari? Gure garraiolariak okerrago gera daitezke egungo egoeran?

Neurriak zenbait zeharkako eragin izan zitzakeen jaiegunetan autonomi erkidego horretatik garraio-ibilgailuak iragateko, beraz, berdintasunaren eta lehiakortasun askearen printzipioak urra litzake.

Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan ibilgailu astunen trafikoa murrizten duen 1997ko maiatzaren 15eko Ebazpen berriarekin, ordea, ez da berdintasunaren printzipioa urratzen.

5.- Nafarroako Gobernuak bilerarik izan al du gure Komunitateko garraiolarien elkarrekin, aipatu neurriak gure Komunitatean izango duen eragina aztertu edo iruzkintzeko? Zer iritzi eta eskakizun dituzte aipatu elkarrekin?

Nafarroako Gobernuak, Garraio eta Telekomunikazioen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, zenbait bilera egin ditu Foru Komunitateko Garraiolarien Elkarrekin, neurria aztertzeko.

Printzipioz, garraiolarien elkarrekin ez dute ibilgailuen zirkulazioari buruzko neurri murriztailerik nahi.

6.- Nafarroako Gobernuak aztertu al du, Euskal Autonomi Elkarteke sortzen ziren muga arazoak, trafikoa arautzeko aipatzen ari garen neurri bereziok hein baten eragin dituztenak, gainditu ondoren, gure Komunitatean gerta daitezkeela orain?

Kontuan hartu da aukera hori.



7.- Aurreko galderetan aipatu diren kontrol neurrietatik at, zer jarduketari ekin dio Nafarroako Gobernuak egoera honi aurre egiteko?

Lakuan, joan den maiatzaren 6an, Nafarroako Gobernuak Barne eta Garraio eta Telekomunikazioen Zuzendari Nagusiek eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Garraio eta Ibilgailuen eta Bidezaingo eta Bide Segurtasunaren Zuzendari Nagusiek egindako bileran, informazioa trukatzea eta bi erkidegoetan arazoaren bilakaera jarraitzea erabaki zen. Gerta litezkeen egoera jakin batzuen inguruko hipotesiak ere egin ziren, argi utziz, beti ere, beharrezko neurriak era koordinatuan hartuko direla.

8.- Nafarroako Gobernuak ba al du Eusko Jaurlaritzak onetsitako arauak auzitegietara eramateko asmorik?

Nafarroako Gobernuak, oraingoz, ez du Eusko Jaurlaritzaren araua Epaitegietan errekurritzeko asmorik.

9.- Nafarroako Gobernuak ba al du Euskal Herriko Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritzaren erabakiaren antzeko araurik gure Komunitatean ezartzeko asmorik?

Nafarroako Gobernuak, oraingoz, ez du antzeko araurik planteatzeko asmorik.

10.- Nafarroako Gobernuak neurtu al du garraiolariak gure Komunitatetik Frantziara igartzeko ordezkoko bideak bilatu beharrak izan dezakeen eragina? Izan ere, baldintza okerragoetan egin beharko dute bidaia, 2. mailako errepideetatik eta zizkuladoientzako arriskua areagotuz.

Ez du ematen hipotesi horrek, Eusko Jaurlaritzak xedapen hori eman baino lehen, 7,5 Tm baino gehiagoko kamioein trafikoa dela-eta, gure Komunitateko beste errepideetan zegoen egoera aldatuko duenik, aintzat hartzen bada zein den errepideen egoera, Frantziako zein bidetara dihoazen kamioiak, garraioa etortzen den lurraldeetatik ibilbideak hautatu beharrak derrigortzen duen aukera, eta debeku hori Frantzian aurreko urteetan jada indarrean zegoela.

11.- Nafarroako Gobernuak eskatu al du bilera edo harremanik izatea Sustapen Ministerioarekin egoera aztertu edota aipatzen ari garen arazoa konpontzeko neurriak bilatzeko?

Barne Ministroari komunikatu bat bidali zitzaion esanez garraio eta barne sailetako arduradunen bilera bat egin beharra zegoela.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 30ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti

#### Ibilgailu astunen EIB

Autobia	1995	1996	1997 (estimazioa)
Iruña-Frantzia	1.425	1.402	1.493
Iruña-Gasteiz	1.760	1.547	1.752

## Kamioiak jaiegunetan ibiltzeari buruzko neurriak hartzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak Kamioiak jaiegunetan ibiltzeari buruzko neurriak hartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 5a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikoen Elkargunea” Parlamentari Taldeko Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak kamioiak jaiegunetan ibiltzeari buruzko neurriak hartzearen inguruko galdera dela eta, Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak ondoko erantzuna ematen dizu:

1. Nafarroako Gobernuak neurriren bat hartuko al du kamioiak jaiegunetan Foru Komunitatetik ibiltzeari buruz?

Foruzaingoaren zerbitzua indartu egin da A-15 autobidean eta bereziki N-121-A errepidean, garraio astunaren trafikoa begiratu eta kontrolatzeko, 1997ko otsailaren 21ean ebazpena indarrean sartu zenetik. Ebazpen hori Eusko Jaurlaritzaren Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendariak eman zuen, 1997ko martxoaren 26an, eta martxoaren 17ko EHAAren 52. zk.an argitaratu zen.

2. Nafarroako Gobernuak uste al du Euskal Autonomi Elkarteak hartu duen neurriak Foru komunitateari eragin txarra ekarriko diola?

Neurriak zenbait zeharkako eragin izan zitzaizkeen jaiegunetan autonomi erkidego horretatik garraio-ibilgailuak iragateko, beraz, berdintasunaren eta lehiakortasun askearen printzipioak urra litzake.

Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan ibilgailu astunen trafikoa murrizten duen 1997ko maiatzaren 15eko Ebazpen berriarekin, ordea, ez da berdintasunaren printzipioa urratzen.

3. Nafarroako Gobernuak errekurtsorik jarriko al du dagokion administrazio- edo epai-arloan auzoko elkarteak hartu duen neurria dela eta?

Nafarroako Gobernuak, oraingoz, ez du Eusko Jaurlaritzaren araua Epaitegietan errekurritzeko asmorik.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 30ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti

## Huarte enpresak Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak betetzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Nafarroako Demokraten Elkar-gunea» Parlamentari Taldeak Huarte enpresak Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak betetze-ari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 2ko 40. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 5a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Huarte enpresaren zerga-betebeharrei buruz egindako galderaren inguruan, ondokoa adierazten du:

Estatuko Administrazioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean sinatutako Hitzarmen Ekonomikoen indarrez (bai 1969koa, bai 1990koa), eta helbide soziala Nafarroan badu ere,

HUARTE, S.A. sozietateak estatuko arauak aplikatu ditu 1987tik 1991ra bitarteko epean Sozietateen gaineko Zerga kitatzeko. Hori dela eta, eta negozioen zenbateko erlatiboari dagokionez, Sozietateak zegozkion kuotak sartu ditu Nafarroako Foru Ogasunean, eta ez da igarri azken horrekiko zerga-betebeharretan arau-hausterik gertatu denik.

Era berean, Sozietateen gaineko Zerga kitatzeko estatuko arauteria aplikatu duenez gero, Estatuko Administrazioa da HUARTE S.A.ren gaineko inspektzio-ahalmena duena. Nafarroako Foru Ogasunak ez du inongo komunikaziorik jaso Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziak egindako jarduketan ez hasierari buruz, ez emaitzei buruz ere.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean 1997ko maiatzaren 29an

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi.

## Azkoiengo saihebidet berria esleitzeko eta eraikitze prozesuari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Azkoiengo saihebidet berria esleitzeko eta eraikitze prozesuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 12ko 33. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 6a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Azkoiengo saihebidetaren lanei buruz egindako galdera dela eta, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak ondoko erantzuna ematen dizu:

1.- Proiektua idazteko eguna, egileak eta zer enpresa edo organismoren menpe diren.

“Azkoiengo saihebidet eta Arga ibaiaren ubidet zuzentzea” izeneko proiektua ondoko egunetan idatzi eta onetsi zen:

1994ko abenduan idatzi zen eta teknikoki 1995eko urtarrilaren 27an onetsi zen, 453/1995 Foru Aginduaren bidez. Jendaurreko informazioan jarri zen.

1995eko apirilaren 24an eman zitzaion behin betiko onespena, 1178/1995 Foru Aginduaren bidez.

Proiektuaren egilea Joaquín Salanueva Etayo izan zen, V.S. Ingeniería y urbanismo, S.L. enpresakoa.

2.- Azkoiengo saihebidet eraikitze proiektua kontrata bidez burutzeko aurrekontuaren hasierako kostua.

Kontrata burutzeko aurrekontua 1.196.387.656 pezeta zen.

3.- Proiektuko obren planak aipatu obrei aurreikusten ziren burutze-epea.

Lanak burutzeko epea 18 hilabetekoa zen, gehienez ere.

4.- Obrak esleitzeko aukeratu den sistema, eta esleipen prozeduraren egun gogoangarriak

(N.A.O.n argitaratzea, kontratazio-mahaia eratzea, esleitzeko Foru Agindua).

a) Adjudikatzeko era: lehiaketa.

b) Kontratazio espediente onestea: maiatzaren 17ko 1589/95 Foru Agindua.

c) NAO n argitaratzea: 1995eko maiatzaren 31n, 69. NAOa.

d) Kontratazio-mahaia eratzea: ekainaren 19ko 1868/95 Foru Agindua.

e) Adjudikazioa: irailaren 7ko 2537/95 Foru Agindua.

5.- Lehiatu diren enpresak, horietako bakoitzak proposatu eskaintza ekonomikoa eta burutze epea.

Enpresak	Eskaintza Ekonomikoa	Epea hilabeteetan
1.- Huarte, S.A.	892.040.000	14
2.- Ginés Navarro Construcciones, S.A.	1.116.546.345	16
3.- Construcciones Lain, S.A.	962.558.990	12
4.- Pavimentos de Navarra, S.A. (PADENASA)	815.936.381	14
5.- Construcciones Mariezcurrena, S.L.		
– Oinarrizkoa	948.766.124	18
– Alternatiba	994.898.111	12
6.- Aldesa Construcciones, S.A.	786.864.161	16
7.- Adolfo Sobrino, S.A. y TECSA	991.805.367	16
8.- Fomento de Construcciones y Contratas, S.A. y Construcción, S.A.	940.564.267	15
9.- Construcciones Luciano Elcarte, S.L.; Urbanizaciones Iruña, S.L.; Obras Especiales de Navarra, S.A. (OBENASA) y Azpiroz y Saralegui, S.L.	909.733.174	14
10.- Atyma	873.362.988	15
11.- Sacyr y Coprisa	816.000.000	15
12.- Construnavar, S.L.; Industrias Asfálticas de Navarra, S.A. (NAVASFALT) y Florencio Suescun Construcciones, S.L.		
– Oinarrizkoa	955.315.543	14
– 1. alternatiba	931.627.069	14
– 2. alternatiba	916.193.666	14
– 3. alternatiba	907.460.037	14
13.- Cubiertas y MZOV, S.A.	926.004.046	16
14.- Agromán		
– Oinarrizkoa	847.999.570	16
– Alternatiba	778.250.170	16
15.- Construcciones Galdiano, S.A.	974.648.877	14
16.- OCP Construcciones, S.A.	778.130.531	14

17.- Obrascon, S.A.			
– Oinarrizkoa	903.153.041	15	
– Alternatiba	926.721.878	15	
18.- Coprosa y Excavaciones Muñoz, S.A.	861.399.112	16	
19.- Entrecanales y Tavora, S.A.	962.852.786	16	
20.- Firms y Aglomerados, S.A.	1.169.000.000	18	
21.- Asfaltos de Biurrun, S.A.			
– Oinarrizkoa	977.089.789	15	
– 1. alternatiba	952.085.297	15	
– 2. alternatiba	931.627.067	15	
– 3. alternatiba	925.046.936	15	
22.- Alcer, S.L.; Transportes y Excavaciones Río Valle, S.L. y Euroasfaltos de Navarra, S.A.	874.827.920	12	
23.- Excavaciones Olloquiegui, S.A. y Harinsa			
– Oinarrizkoa	823.114.707	13	
– Alternatiba	799.186.954	13	
24.- Dragados y Construcciones, S.A.	901.717.636	16	
25.- Ferrovial, S.A. e Ismael Andrés, S.A.	885.326.000	16	

6.- Eskaintzen azterketa: balorazio irizpideak eta aurreko enpresetako bakoitzaren guztizko balorazioa.

Ondokoak dira balorazio irizpideak, A.K.P.O.aren (aministrazio klausula partikularren orria) arabera:

*A) Eskaintako aurrekontu orokorra.*

% 35 ponderatuko da, eta 0tik 10 puntura bitarte baloratuko da ondoko formulak aplikatuz:

– (Batezbesteko beherapena - 10)tik beherako beherapenetarako ..... 0 puntu.

– (Batezbesteko beherapena + 10)tik beherako beherapenetarako ..... 6 puntu.

– Bitarteko beherapenetarako:  
Beherapena (Batezbesteko beherapena - 10)

2

*B) Lanak burutzeko epea.*

% 5 ponderatuko da eta 0tik 10 puntura bitartean emanen zaio. Aintzat hartuko da baliaibideak lanak eskaintako epeak burutzeko egokiak ote diren.

*C) Eskaintzaren balio teknikoa.*

Irizpide honetan ondoko inguruabarrak hartuko dira kontuan:

1. Balorazio teknikoa

% 40ko ponderazioa. 0tik 10era bitarteko puntuak.

1.1. Proiektuaren azterlana, eskaintzaren eta programazioaren koherentzia, bera epe partzialak betetzeko behar denean egokituz.

1.2. Lanetarako erabiliko diren langileen ekipoa.

1.3. Lanei atxikitako makineria eta laguntzako baliabideak. Bitarteko berekiak edo/eta Administrazioarentzat bermatuta dauden azpikontratazioak erabiltzea baloratuko da.

1.4. Eskaintako alternatibak, fabrika eta firmen lanei dagokienean soilik.

2. Lizitzailearen egokitasuna.

% 20 ponderatuko da. 0tik 10 puntura bitartean.

Aintzat hartuko dira: lizitzailearen egokitasuna, daukan ahalmena dela eta; taimainari dago-kionean, egungo obraren egitura eta bolumena; obraren ezaugarriak eta zailtasuna.

Ondokoa izan zen guztizko balorazioa:

Enpresa	Puntuak
1.- Huarte, S.A. ....	5,55
2.- Ginés Navarro Construcciones, S.A. ....	3,88
3.- Construcciones Lain, S.A. ....	4,42
4.- Pavimentos de Navarra, S.A.(PADENASA) ....	7,66
5.- Construcciones Mariezcurrena, S.L. ....	7,29
6.- Aldesa Construcciones, S.A. ....	6,38
7.- Adolfo Sobrino, S.A. y TECSA ....	4,31
8.- Fomento de Construcciones y Contratas, S.A. y Construcción, S.A. ....	4,69
9.- Construcciones Luciano Elcarte, S.L.; Urbanizaciones Iruña, S.L.; Obras Especiales de Navarra, S.A. (OBENASA) y Azpiroz y Saralegui, S.L. ....	6,09
10.- Atyma ....	5,47
11.- Sacyr y Coprisa ....	6,90
12.- Construnavar, S.L.; Industrias Asfálticas de Navarra, S.A. (NAVASFALT) y Florencio Suescun Construcciones, S.L. ....	5,42
13.- Cubiertas y MZOV, S.A. ....	5,08
14.- Agromán ....	7,02
15.- Construcciones Galdiano, S.A. ....	4,74
16.- OCP Construcciones, S.A. ....	6,08
17.- Obrascon, S.A. ....	5,81
18.- Coprosa y Excavaciones Muñoz, S.A. ....	5,82
19.- Entrecanales y Tavora, S.A. ....	5,31
20.- Firms y Aglomerados, S.A. ....	3,43
21.- Asfaltos de Biurrun, S.A. ....	5,66
22.- Alcer, S.L.; Transportes y Excavaciones Río Valle, S.L. y Euroasfaltos de Navarra, S.A. ....	6,90
23.- Excavaciones Olloquiegui, S.A. y Harinsa ....	7,71
24.- Dragados y Construcciones, S.A. ....	5,83
25.- Ferrovial, S.A. e Ismael Andrés, S.A. ....	5,47

Bide Zerbitzuaren txostenak ondokoa dio:

Aipatu koadroa eta bertan bildu diren zenbatekoak ikusita, ondoko oharpenak egin daitezke:

1. Guztizko puntuaziorik altuena duen eskaintza Excavaciones Olloquiegui, S.A. eta Harinsa enpresek aurkeztutakoa da, 7.71 punturekin, eta ondotik Pavimentos de Navarra, S.A.k (Padenasa) aurkeztutako eskaintza, 7.66 punturekin.

2. Balorazioaren kontzeptu guztiak banan-banan aztertuta ateratzen den ondorioa da Pavimentos de Navarra S.A. (Padenasa) enpresaren eskaintzak puntuazio altuagoa duela ondoko kontzeptuetan:

- aurrekontua
- epea
- egokitasuna

Excavaciones Olloquiegui, S.A. eta Harinsa enpresen eskaintzak, berriz, puntuazio hobea du "Eskaintzaren balio teknikoa" kontzeptuan.

3. "Eskaintzaren balio teknikoa" kontzeptuan bi eskaintza horien arteko desberdintasunen balorazioa "Alternatibak" izeneko atalean dago. Atal horretan Excavaciones Olloquiegui, S.A.k eta Harinsa enpresek osatutako U.T.E.ak alternatiba bat aurkeztu du oinarritzko proiekturako eta Pavimentos de Navarra, S.A.k (Padenasa) ez du horrelakorik egin. Bestalde, kontzeptu horretako gainerako ataletan balorazio bera dute.

4. Guztizko batuketan, non Excavaciones Olloquiegui, S.A.k eta Harinsak osatutako U.T.E.ak puntuaziorik handiena ateratzen baitu, oinarritzko soluziorako eskaintako zenbatekoei balorazio irizpideak aplikatuta atera da, eta ez soluzio alternatiboari aplikatuta, izan ere alternatiba horrek ez baitu inongo alde onik Administrazioarentzat, proiektuaren soluzioari dagokionean.

Aurretik azaltutakoa ikusi ondoren, Bide Zerbitzu honek kontsideratzen du Padenasak aurkeztutako eskaintza merkeagoa dela, burutzeko epea hobea eta lizitatzen den obrarako egokiagoa duela, eta, bestalde, Excavaciones Olloquiegui, S.A.k eta Harinsak osatzen duten U.T.E.ak aurkeztutako alternatiba (alegia, puntuazioaren amaierako aldea sortarazten duen kontzeptua) ez dela interesgarria Administrazioarentzat. Beraz, Padenasak aurkeztutakoa da abantaila handienak dituen eskaintza.

7.- Azkoiengo saihezbidea eraikitzeako obrak behin betiko esleitu zitzaizkion enpresa eta kontratuaren baldintzak (esleitutako kontrataren burutze-aurrekontua eta burutze-epea)

Adjudikatzailerak: Pavimentos de Navarra, S.A. (Padenasa)

Adjudikazioaren aurrekontua: 815.936.381 pta. (% 31,80ko beherapena).

Burutzeko epea: 14 hilabete.

8.- Enpresa birkontratatzailerak eta horietako bakoitzak egin duen lana.

- Excavaciones Río Valle: lur mugimenduak.
- Mur-Ebal: horma aurrefabrikatuak.
- ALVISA: zubietarako elementu aurrefabrikatuak.
- TERRATEST: zubiak pilotatzea.
- SIGVISA: seinale horizontalak.
- API: seinale bertikalak eta balizak.
- Feler, S.A.: energia eta argiztapena.

9.- Obraren zuzendaria. Zer erakunde edo enpresaren menpe dagoen.

- Zuzendaria: Juan José Jiménez Tapia.
- Erakundea: Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua.

10.- Obrei laguntza teknikoa emateko ardua zuen enpresa, eta halakorik kontratatu bada: esleipen sistema, aurkeztu diren enpresak eta etorri den laguntza teknikoko enpresetako bakoitzak aurkeztu dituen aurrekontuak.

Ez dago laguntza teknikorik.

11.- Laguntza teknikoaren azken kostua, behin-behineko edo behin betiko likidazioaren arabera.

Zero pezeta.

12.- Obrak bukatzeako epea, kontratuaren edo baldintzen orriaren arabera.

1997ko urtarrilaren 6a.

13.- Zuinketa akta izenpetzeako eguna.

1995eko azaroaren 6a.

14.- Administrazioak onetsi dituen proiektu eraberrituak, horiek agintzeko edo idazteko arrazoiak, eta horietako bakoitzaren kostua.

Obrako aldaketa: ubidearen zabalpena babes-tea, bi metro altu izanzen dituen harri-lubeta bat eginez, eta Funes eta Rincón de Soto-ko glorieta zabalak glorieta itxiak bihurtu eta haiek argiztatzea.

- Aldaketaren kostua: 54.917.265 pezeta.
- Epearen luzapena: bi hilabete.

Arrazoiak: Azkoiengo eta Funesko Udalen eskatu dute eta Departamentu honek onartu.



15.- Bai obren zuzendaritzak, bai Administrazioak berak prezio kontradiktoriotzat onetsi dituen obra-unitateen zehaztapena eta prezioa.

“Argi puntu bat, 12 metroko oinarria, luminaria bat, USAP lanpara bat eta abar, kanalizazioaren, kableatuaren, aginte zentroaren, babes eta neurriaren parte proportzionala. Erabat instalatuta, funtzionamenduan eta legeztatuta: 366.569 pezeta.”

Hartunearen MLa, konpainia hornitzailearen transformazio zentrotik hasi eta elkarguneetara, kanalizazioa, kableatua, kutxetak eta abar barne. Erabat instalatuta, funtzionamenduan eta legeztatuta: 4.575 pezeta.

16.- Eman diren obra-ziurtagirien kopurua, horien onarpenaren eguna eta, horietako bakoitzaren kontratako burutze-aurrekontua.

1.a 95eko azaroa	24.035.323	22.12.95
2.a 95eko abendua	75.964.593	17.01.96
3.a 96ko urtarrila	15.266.027	06.03.96
4.a 96ko otsaila	19.001.016	18.03.96
5.a 96ko martxo	43.502.961	03.05.96
6.a 96ko apirila	28.671.767	29.05.96
7.a 96ko maiatza	73.659.688	20.06.96
8.a 96ko ekaina	81.350.347	24.07.96
9.a 96ko uztaila	35.397.954	16.08.96
10.a 96ko abuztua	95.453.568	17.09.96
11.a 96ko iraila	64.527.939	23.10.96
12.a 96ko urria	91.637.917	02.12.96
13.a 96ko azaroa	51.530.500	23.01.97
14.a 96ko abendua	0	Egiaztatu gabea
15.a 97ko urtarrila	86.681.558	04.03.97 (14.a / 15.a)
16.a 97ko otsaila	27.264.577	
P.A. 97ko apirila	1.990.245	

17.- Kontrata bidezko burutze proiektuari buruzko behin betiko txostena obren likidazioa.

Likidazioa: 832.529.754 pezeta (argiztapen lanak barne, aparteko faktura batez).

18.- Obren behin-behineko eta behin betiko onarpenaren akten egunak (aurreikusitako eguna, izenpetu ez badira).

– Behin behineko onarpena: 1997ko martxoaren 24a.

– Behin betiko onarpena: ez da bete bermearen epea.

19.- Baldintzen orrian edo kontratuan aipatzen den epea bete ez bada, atzerapenaren arrazoiak.

14 hilabete gehi luzapenaren bi hilabeteko epea bete da, izan ere lanak 1997ko martxoaren batean bukatu baitira.

20.- Baldintzen orrian edo kontratuan atzerapen-egun bakoitzeko jarri den zehapena eta, hala bada, enpresa esleipendunari ezarri zaizkion zehapenen zenbatekoa.

Ez dago horrelakorik.

21.- Administrazioak onetsita burutu diren aldaketen zerrenda, haiek proposatu dituen organismo, entitate edo erakundea, eta horietako bakoitzaren azken aurrekontua.

Egindako aldaketa 14. galderan azaldu dena da.

22.- Azkenik, Azkoiengo saihebidet berria bukatu eta ireki ondoren, Azkoiengo Udalak, enpresek, organismoek edo bestelako erakundeek egindako iradokizun edo proposamenen baten ondoriozko obrak egiteke al daude oraindik? Baiezkoan: argi eta garbi aipatu proposamena, arrazoiaketa laburra, eta horietako bakoitzaren gutxi gorabeherako kostua.

Ez da gelditzen burutu beharreko jarduketarik. Azkoiengo udalak eskatu zuen El Raso-tik hasi eta ibaia bitarteko erreka kanalizatzeko, baina jarduketa horrek ez du loturarik saihebidetaren lanekin. Kanalizazio horri buruzko azterlan bat egin zen, eta 130 milioi inguruko kostua izanen zukeen lan horrek. Azkoiengo Udalarik esan zitzaion Udalak berak sustatu behar zituela proiektua eta lanak, eta, halakorik balitz, Departamentuak ubideak eta babesak eraikitzeke udal lanei ematen dizkien laguntzak eska zitzakeela.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluan eta ondokotan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 2a

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti



**96034-0 zenbakia duen aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak 96034-0 zenbakia duen aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 12ko 33. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 6a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Inmaculada Matías Angulo, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari Andreak "Ur-pilatzea, Azpiegitura Hidraulikoa eta Lan Osagarriak" izeneko 96034-0 zenbakidun Aurrekontu Lerroaren egoeraren hainbat alderdiri buruz egindako galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak:

1.- Zer diru erabili da 96034-0 lerro-zenbakia duen aurrekontu-kontusailetik.

Aipaturiko kontusailaren kargura 1997ko maiatzaren 15era arte egindako gastuak honako hauek izan dira:

– Urrobi ibaia Zanduetan bideratzeko lanen 2. egiaztapena.....	1.552.486 pzta.
– Aoiz-Nagore errepidearen proiektua Ingurugiroaren gaineko eraginari buruzko deklarazioari egokitzea.....	1.895.000 pzta.
– Itoizko urtegiko lursailen desjabetzea (1352 Foru Agindua) .....	17.680.676 pzta.
– Itoizko urtegiko lursailen desjabetzea (1529 Foru Agindua) .....	7.287.800 pzta.
– Frontoiko eta hilerriko lanak direla-eta 3. egiaztapena Nagoreko Kontzejuari, Hitzarmenaren arabera .....	26.615.425 pzta.

– Hainbat faktura.....	756.811 pzta.
– Ordainduriko guztia. ....	55.788.198 pzta.

2.- Aipaturiko kontusaileko zer diru hitzartu den eta zer obratan hitzartu den.

Kontusail honen kargura 1997ko maiatzaren 15era arte hitzarturiko dirua hau da:

– Nagoreko UE-2 unitatea urbanizatzeko lanak.....	213.883 pzta.
– Nagoreko azpiegiturak urbanizatzeko lanak.....	569.890 pzta.
– Nagoreko UE-2 unitatean gas-hodiak eta telebista ipintzea .....	96.368 pzta.
– Nagoren gas-hodiak eta telebista ipintzea.....	767.782 pzta.
– Frontoia eta hilerria eraikitzeako Hitzarmena Nagoreko Kontzejuarekin.....	31.817.495 pzta.
– Hitzarmena Artzibarrekin.....	1.500.000 pzta.
– Sare elektrikoak ordeztzeko proiektua	3.971.892 pzta.
– Arraitz Urtegiaren ingurugiro-eraginari buruzkoa osatzen duen azterketa ....	2.455.586 pzta.
– Urrobi ibaia Zanduetan bideratzea....	7.152.992 pzta.
– Hitzarturiko guztia.....	48.545.888 pzta.

3.- Aipaturiko aurrekontu-kontusailak zer bitarteko duen.

Aurrekontu-kontusail honek gaur egun duen saldoa, 495 milioi pezetakoa, honako kontzeptuetara zuzentzea aurreikusten da: Itoizko urtegiarekin zerikusia duten desjabetzeak, urtegi horrek ukitzen dituenak ordeztuko dituzten errepideak eraikitzea eta Nafarroako Ubidearen lanak hastea. Halaber, beste hainbat kontzeptutara ere kopuru txikiak zuzenduko dira; adibidez, Itoizko atzealde-dikeen proiektua, hainbat ibai bideratzeko lanak eta abar.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 27a.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti.

## Errioxako Autonomi Elkartearekin eta Insaludekin izenpetzeko lankidetzaz-hitzarmen proiektuari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak Errioxako Autonomi Elkartearekin eta Insaludekin izenpetzeko lankidetzaz-hitzarmen proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 12ko 33. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 7a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Luis Gerardo Eslava, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari Jaunak Errioxako Autonomi Elkartearekin eta Insaludekin izenpetzeko lankidetzaz-hitzarmen proiektuari buruz egindako galdera dela-eta,

honako erantzun hau bidaltzen du sinatzen duen Osasun Kontseilariak:

1.- Hitzarmen-proiektua egiterakoan, Nafarroako Gobernuak gogoan izan al du hitzarmenak ukitzen dituen nafarrek egitez adierazi duten osasun zerbitzuen aukera?

Bai.

2.- Komunikabideetan irakurri ahal izan dugun bezala, 24.761 biztanle omen dira Logroñon atenditzekoak. Nafar horiek derrigorrez Logroñoko larrialdi-zerbitzuetara jo beharko dutela esan nahi du horrek?

Ez.

Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 30a

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## Nafarroako Ospitaleko larrialdi-kirofanoen erabilgarritasunari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M<sup>a</sup> Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak Nafarroako Ospitaleko larrialdi-kirofanoen erabilgarritasunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 7a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

M<sup>a</sup> Rosario Villanueva Iturralde, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari Andreak Nafarroako Ospitaleko larrialdi-kirofanoen erabilgarritasunari buruz egin-

dako galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Osasun Kontseilariak:

1.- Zer aldaketa aurreikusi edo burutu da Nafarroako Ospitaleko larrialdietako kirofanoen erabilgarritasunari dagokionean?

Nafarroako Ospitaleak 10 kirofano dauzka: sei H Pabilioian eta lau A Pabilioian. Lehenak programaturiko zirujarako soilki erabiltzen dira, eta A Pabilioikoak larrialdiko edo luzaezineko zirujarako, larrialdiko zirujia luzagarrirako eta anestesia lokala erabiltzen duen zirujia programaturako. Laugarren kirofanoa ez zegoen behar bezala hornitua, eta, zirujia-blokeko Medikuntza Zerbitzuak eta Erizaintza Unitateak ordezkatzen dituen Zirujia Batzordeari entzun ondoren, Zuzendaritzak "larrialdietarako" deituriko A Pabilioiko zirujia-eremua berrantolatzea erabaki zuen, honela banatuz:

- Kirofano bat larrialdi luzaezinetarako.
- Kirofano bat larrialdi luzagarrietarako.
- Kirofano bat anestesia lokala erabiltzen duen zirujarako.
- Kirofano bat zirujia programaturako (zirujia programatua burutzeko, kirofano hau nagusiki Bihotz-hodietako eta Bularraldeko Zirujia zein Zirujia Orokorreko Zerbitzuetatik hornitu da).

Plan hau martxotik uztaile arte dago indarrean. Uztailean egoeraren analisi bat egingo da, eta azterketatik ondorioak aterako dira, planaren irailetik aurrerako iraupena baldintzatuko dutenak.

2.- Zer aldaketa aurreikusi edo burutu da aipaturiko kirofanoetako langileei dagokienez?

Zuzendaritza Medikoari dagokionean, antolaketa honek ez du ezain langile-aldaketarik ekarri; bai, ordea, langileen jardueraren gehikuntza bat, batez ere Traumatologia eta Zirujia Ortopedikoaren, Zirujia Orokorren eta Bihotz-hodietako eta Bularraldeko Zirujia Zerbitzuetan.

Erizaintza Zuzendaritzak egindako aldaketak giza-baliabideen egokitzapenean (gehikuntzan) gauzatu dira. Ondorioz, plantilara bi pertsona gehiago sartu dira, eta goizeko txandan zortzi erizain, bi erizain-laguntzaile eta bi zaindarien presentzia fisikoa, hala nola "Pertsona-bilagailu" bidez lokalizaturiko erizain baten prest-egotea bermatu behar izan dira.

Aurreikusitako jarduera mantentzen den bitartean daude bermatuta presentzia fisiko hauek.

Gainera, Zuzendaritzak espazioa egokitzeko eta bitarteko material eta teknologikoak eskaintzeko konpromisoa hartu zuen, aipaturiko jarduerari laguntza emateko.

3.-Bietan aldaketak gertatu badira, aldaketok egiteko arrazoiak.

Lehen agertu bezala, Nafarroako Ospitaleak 10 kirofano dauzka, gaur egungo beharrei aurre egiteko nahikoak direnak, beti ere modurik onenean erabiltzen eta errendimenduak onak baldin badira. Kirofano-banaketak (H Pabilioiko sei - "Kirofano Zentralak"- eta A Pabilioiko lau -"Larrialdietarako Kirofanoak"-) nahasketa eragin dezake lau horiek "soilik eta eskusiboki" larrialdietarako zatit hartzen baldin badira.

Gure ustez, kalitatearen bikaintasuna bilatuko duen osasun-sistema publiko arin eta emankor bat bermatzeko, osasun-baliabideak efikazia-irizpideekin ezezik, efizientziakoekin ere kudeatu behar dira, balizko kudeaketa txar batetik eratorritako problemek sistemaren erabiltzaileak ez ukitzeko beharrezkoa den kopurua lortzeko uko egin gabe.

Berriki egindako behin-behineko berrantolaketak honako hauek ditu helburu:

- Larrialdi luzagarriak ordenatzea, honela osasun-laguntzaren antolaketa hobea ahalbidetzeko.

- Larrialdi luzaezinen berehalako arretaz arduratzea, orain arte egin bezala.

- Hainbat espezialitatetan itxaron zerrendan dauden pazienteei erantzun bat ematea, behar den garaian eta behar bezala.

Zuzendaritza Batzordeak ezin dio uko egin Nafarroako Ospitalearen lehiakortasuna, zirujia-kalitate ona eta baliabideen erabilpen egokia ziurtatzen direla jotzeko argudioak ematen dituen eta kantitate eta kalitateari eragiten dien jarduketadynamika bati.

Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 30a

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## Otsagabia eta Erronkariko naturaren interpretazio zentroyen kudeaketari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M<sup>a</sup> Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak Otsagabia eta Erronkariko naturaren interpretazio zentroyen kudeaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari

Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 7a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

M<sup>a</sup> Rosario Villanueva Iturralde, "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari Andreak Otsagabia eta Erronkariko naturaren interpretazio-zentroen kudeaketari buruz idatziz erantzun dakion eginiko galderari ihardetsiz, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak honako erantzun hau bidaltzen du:

1. Zer arrazoi izan du Ingurugiro Kontseilariak Otsagabia eta Erronkariko naturaren interpretazio-zentroen kudeaketa talde bakarraren esku biltzeko?

Otsagabia eta Erronkariko naturaren interpretazio-zentroak esleitzeko, bi lehiaketa publiko bereizi egin ziren. Bietan, enpresa berbera izan da puntuaziorik haundiena lortu duena.

2. Zer arrazoi bultzatu du Ingurugiro Departamentua aurreko urteetan erabilitako irizpidea aldatzera, alegia Zaraitzu eta Erronkariko jende gazteak gobernatzea aipaturiko zentroak?

1996ko Baldintza Orriko esleipen-irizpideak honakoak izan ziren:

1.- Eskaintza bera: egin beharreko lanak zeintzuk diren eta noiz egin behar diren, horiek burutzeko dauzkan bitarteko materialak eta ea hauek Baldintza Teknikoen Orrira egokitzen diren kontuan edukiz. Gehienez 3 punturekin baloratuko da.

2.- Lan-mota honetan Enpresak duen esperientzia. Gehienez 3 punturekin baloratuko da.

3.- Lan-taldearen lan-ahalmena, egokitasuna eta dedikazioa. Gehienez 2 punturekin baloratuko da.

4.- Eskaintzako aurrekontu orokorra. Gehienez 2 punturekin baloratuko da.

1997ko esleipenerako irizpideak hauek izan ziren:

a) Lan-egitasmoa: egin beharreko lanak zeintzuk diren, denboran zehar nola banatzen diren, horiek burutzeko erabilgarri diren bitarteko materialak eta ea Baldintza Teknikoen Orrira egokitzen diren kontuan edukiz. Orik 3 puntura.

b) Lizitatzailer, enpresa edo ekipoaren pertsona- eta teknika-baliabideak lan-mota honetan, bere egokitasuna eta dedikazioa ere kontuan edukiz. Orik 4 puntura.

c) Eskainiriko Aurrekontu orokorra. Orik 3 puntura.

Esleipen-irizpidea Erronkari eta Zaraitzu ibarretako biztanleei lehiaketan parte har dezaten eta, hala bada, Interpretazio Zentroak kudea ditzaten eragozteko asmoz ez dela aldatu egiazta daiteke, hortaz.

3. Zer administrazio-irizpide zehatz erabili du aipaturiko Departamentuak bi zentroen kudeaketaren esleipena kontratatzeko?

Lehenago adierazi bezala, 1997ko esleipenerako irizpideak hauek izan ziren:

1.- Lan-egitasmoa: egin beharreko lanak zeintzuk diren, denboran zehar nola banatzen diren, horiek burutzeko erabilgarri diren bitarteko materialak eta ea Baldintza Teknikoen Orrira egokitzen diren kontuan edukiz. Orik 3 puntura.

2.- Lizitatzailer, enpresa edo ekipoaren pertsona- eta teknika-baliabideak lan-mota honetan, bere egokitasuna eta dedikazioa ere kontuan edukiz. Orik 4 puntura.

3.- Eskainiriko Aurrekontu orokorra. Orik 3 puntura.

4. Zenbat eskaintza eta zeintzuk aurkeztu dira aipaturiko esleipenera?

Otsagabiarako lau eskaintza aurkeztu dira: Ostadar, Balbuena, Goyeneche-Sagardoi-San Juan eta Basarte.

Erronkarirako sei eskaintza aurkeztu ziren: Ostadar, Santiago Maiza, Basarte, Geroa, Beatriz Galech eta Silvia Galé.

5. Zenbat puntu atera dute esleipenean balortu beharreko atal bakoitzean?

Otsagabia:

	1. irizpidea	2. irizpidea	3. irizpidea	Guztira
Ostadar	2.50	3.50	0.04	6.04
A. Balbuena	2.00	3.00	0.26	5.26
Goyeneche	2.25	2.50	0.00	4.75
Basarte	1.75	2.25	0.60	4.60

Erronkari:

	1. irizpidea	2. irizpidea	3. irizpidea	Guztira
Ostadar	2.50	3.50	0.04	6.04
S. Maiza	2.00	3.00	0.26	5.26
Basarte	1.75	2.25	1.00	5.00
Geroa	2.25	2.50	0.00	4.75
Beatriz Galech	1.75	2.50	0.19	4.44
Silvia Galé	1.75	1.00	0.16	2.91

6. Zaraitzu eta Erronkariko hautetsiei irizpidearen aldaketaren eta kontratazioaren bata bestearen ondorengo administrazio-aldien berri eman al zaie, irizpideak ezagutu eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko?

Naturaren Interpretazio Zentroen kudeaketarako kontratazioa lehiaketa publiko bidez egiten da, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean zein hedapen handieneko bi egunkarietan iragartzen da.

Beraz, kontratazio horretarako baldintza-sorta publikoki ezagutzen zen, eta, are, aurreko kudeatzaileek beren esku zituzten Baldintza Orriak eskaintza aurkeztu ahal izateko, eta ez zen inolako erreklamaziorik aurkeztu irizpide-aldaketa izan zela uste izanagatik.

7. Zergatik ez zaio lehentasunik eman bi ibarretako lagunak kontratatzeari, bereizketa positiboa erabilita, atzeraka doazen eskualdeak sustatu eta bertoko biztanleek beraiek ingurugiroa zaintzeko politika zentzuzko batek eskatu bezala?

Administrazio-kontratazio arloan indarrean dagoen legeriari guztiz makurtzeak irizpide baztertzailero (positibo zein negatiboa) ezabatzea galdatzen du, are gehiago lehiaketako partehartzaileen artean puntuazio-berdintasunik ez dagoenean. Atzeraka doazen nekazal eskualdeen sustapena ezin daiteke administrazio-kontratazioaren objektibotasunaren kaltetan egin.

8. Nola uler daiteke aurreko lehiaketetan eta antzeko esleipen irizpideekin lehen postua eta hautatuak izatea lortu duten pertsonak, oraingo esleipenean, esperientzia eta ezagupen gehiago izan arren, bi zentroak kudeatzeko enpresa bakarren atzetik geratzea?

Azalpena aski erraza da, zeren eta egin beharreko lanaren, kronogramaren eta pertsona eta teknika-baliabideen aldetik eskaintza hobea frogatu zuen enpresa bat aurkeztu baitzen Lehiaketara. Esperientzia hutsa ezin daiteke hautaketa-irizpide gisa baloratua izan, eta, nolana ere, ez zen erabakigarria izango kontratatu beharreko taldea hautatzean.

9. Egia al da, eta hala izatekotan, zergatik, enpresa esleipendunak birkontratazioen bitartez atenditu eta kudeatu nahi dituela aipatu zentroak? Nola egingo dira aipaturiko birkontratazioak eta zer kontrol-neurri erabiliko ditu Gobernuak haien egokitasuna bermatzeko?

Enpresa esleipendunak zonako pertsonala kontratatzea proposatzen du publikoarentzako arretaz arduratzeko, baina honek inola ere ez du esan nahi Zentroaren kudeaketa birkontratatzen denik. Publikoarentzako arretari, harrerari eta Interpretazio Zentroen edukiei buruzko informazioa emateari dagokio eskusiboki.

10. Ingurugiro Kontseilariak asmorik al du irizpide eta jarduketa horiek Nafarroa guztira hedatzeko, naturguneak eta haien ekipamenduak kudeatzeko orduan? Zergatik?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak egingo dituen kontratazioak ahal den neurrian objektibotasun-irizpideei makurtuko zaizkie, eta, edozein kasutan ere, Kontratuei buruzko Foru Legeak ezarrikoari.

11. Nafarroako Gobernuak ba al du Zaraitzuko bederatzi hautetsien kezkarri jaramon egiteko asmorik? Haserre eta kezka lojiko eta normala azaldu baitute Ingurugiro Departamentuaren jarduketa dela-eta, bestelako itxaropenik eskaini zitzaielako, batez ere, haiek azaldu bezala.

Departamentu honi formalki zuzendu zaion entitate bakarra Otsagabiako Udala izan da.

12. Zer neurri zehatz hartu nahi du Nafarroako Gobernuak Zaraitzu eta Erronkariko ibarretako enplegua sustatzeko, bi ibarretako natur baliabideak zabaldu, zaindu, kudeatu eta ezagutzetik abiatuta?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, bere eskumenei dagokienean eta bere aurrekontu-erabilgarritasunaren arabera, Zaraitzu eta Erronkari ibarrei laguntza ematen die inbertsio berekien eta tokientitateek beraiek eginiko inbertsioetarako dirulaguntzen bitartez.

Natur baliabideei dagozkien eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak egin eta emandako inbertsio eta dirulaguntzak batez ere baso-jarduketetarakoak dira. Jarduketa hauek enplegu-sortzaileak dira.

13. Nafarroako Gobernuak beharrezkotzat jotzen al du landa-sustapen plana egitea Pirinioko ibarren garapen sozioekonomikoa bultzatzeko?

Nafarroako Gobernuak ibar hauen garapen sozioekonomikoa sustatzen dihardu. Garapen hori Departamentu ezberdinen jarduketek bultzatzen dute, plan berezi bat ez dagoen arren.

14. Nafarroako Gobernuak uste al du Ingurugiro Kontseilariak burutu duen jarduketa bezalakoek ingurugiroa zaindu eta babesteko giro aproposa sortzen laguntzen dutela, egitura-arazo larriak dituzten herrietan?

Ukituriko biztanleengan aldeko jarrera sortzea bilatu behar dute ingurugiroaren gaineko jarduketek, baina, aldi berean, kasu honetan bezalaxe, legezketasunari eta gardentasun zein administrazio-kontratazioan ez diskriminatzearen printzipioei makurtu behar zaizkie.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 4a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo



## Sarriako Jaurerrian dagoen ehiza-hesiari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak Sarriako Jaurerrian dagoen ehiza-hesiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 7a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Ezker Abertzalea” Parlamentari Taldeko Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak Sarriako Jaurerrian dagoen ehiza-hesiari buruz egindako galdera dela eta, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak ondoko erantzuna ematen dizu:

1. Zer jarduketa bultzatu du Departamentuak Sarriako Jaurerriko aipatu ehiza-hesia kentzeko?

Lurraldearen Antolamendu eta Ingurugiro Kontseilariak 1995eko martxoaren 22an eman zuen 300/1995 Foru Aginduaren bitartez, hasiera eman zitzaion Señorío de Sarría, S.A. ren aurkako zehapen espedienteari, basa-fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea ustez hausteagatik. Egoera horren arrazoia zen finka hartan basa-faunaren zirkulazioa galarazten zuen hesi bat jarri zela.

Lurraldearen Antolamendu eta Ingurugiro Kontseilariaren maiatzaren 5eko 548/1995 Foru Aginduaren bitartez, zehapen bat ezarri zitzaion Señorío de Sarría, S.A. ri basa-fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea hausteagatik. Jarritako zehapena 30.000 pta.koa zen, aipatu Foru Legearen 114. a) artikuluan azaldutako legehausteagatik. Era berean, aipatu aginduaren bidez enpresa horri eskatu zitzaion gaizki jarritako hesiak behar bezala jartzeko. Horretarako jarritako sarea kendu behar zuten lurretik hasi eta 30 cm-ra bitartean, beranduenez hilabeteko epean. Epe horretan konponketa hori egiten ez bazuen, ohartarazten zitzaion behartzeko isunak ezarri ahalko zitzaizkiola aipatu legearen 109. artikuluan xedatutako modu eta zenbatekoan.

Señorío de Sarría S.A. ren ordezkariak helegite arrunta jarri zuen Foru Agindu horren aurka, baina

Nafarroako Gobernuak ezetsi egin zuen 1995eko ekainaren 26ko Gobernu Bilkuran. Egun horretako Gobernuaren Erabakian hilabeteko epea ematen zitzaion enpresari hesiak maiatzaren 5eko 548/1995 Foru Aginduan ezarritako moduan jartzeko, eta ohartarazten zitzaion hala egiten ez bazuen behartzeko isunak ezarri ahalko zitzaizkiola. Señorío de Sarría S.A. enpresak Gobernuaren Erabaki horren aurkako 1.539/1995 administrazioarekiko helegitea jarri zuen. Helegite horretan, era berean, ezesteko erabakia bertan behera uzteko eskatzen zitzaion Gobernuari. Nafarroako Epaitegi Nagusiko Administrazioarekiko Aferen Aretoak, 1996ko urtarrilaren 5eko Autoaren bitartez, eskaera hori hein batean onartzea erabaki zuen, ezarritako zehapenari zegokionean soilik. Beraz zehapen hori bertan behera utzi zen haren zenbatekoko (30.000 pta.) banku-abala 15 eguneko epean aurkeztu ondoren, baina ez zen onartu jarritako hesiaren aldaketa bertan behera uzteko egindako eskaera.

2. Legez kanpokoa dela jakinik, egia al da Ingurugiro Departamentuak basurde kopuru jakin bat botatzeko baimena eman zuela?

Urtarrilaren 30eko 49/1997 Foru Aginduaren bitartez, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak baimena eman zuen basurdeak harrapatzeko bi ehizaldi egiteko Sarriako Jaurerriko NA-10.045 ehiza barrutian.

Baimen hori emateko arrazoia zen basurdeek kalte batzuk eginak zituztela barruti horretako oihaneko alderdien ondoko labore-alorretan. Basa-fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeak baimena ematen zuen jardura horietarako ondoan aipatzen diren inguruabarretako bat gertatzen denean:

a) Horiek aplikatzearen ondorioz, pertsonendako osasun eta segurtasunean kalterik gertatzen bada.

b) Horiek aplikatzearen ondorioz, arriskuan dauden espezieendako kalteak gertatzen badira.

c) Beste espezie, nekazaritza, abeltzaintza, baso, mendi ehiza, arrantza eta ur-kalitatearentzako kalte nabariei aurre hartu behar zaienean.

Izan ere, antzeko ehizaldiak egin ziren 1995eko iraila, urria eta azaroan, finkako mahasietan egindako kalteak ikusita.



3. Sarriako Jaurerriko jabeek ba al dute Ehiza Antolatzeke Plan derrigorrezkoa, beraien lurretan ehizan aritu ahal izateko?

Sarriako Jaurerriko ehiza barrutia (NA-10.045) 1992ko abuztuaren 17an hasi zen Ehiza Antolatzeke Plana izapidatzen. Espedientea, dokumentu berriak aurkeztea derrigortzen zituen zenbait administrazio jarduketa egin ondoren, 1997ko maiatzaren 23ko Ebazpenarenarekin bukatu zen, hain zuzen ere, Antolamendu Planaren onespenerekin.

Aipatzekoa da, administrazio jarduketa osoan zehar eta E.A.P.ren onespena bitartean, NA-

10.045 ehiza barrutian ehizaldi gutxi batzuk baizik ez direla egin, beti ere aurretik baimenduak nekazaritza-laboreetan egindako kalteak ebitatzeko egin direlako.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 30ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria, Yolanda Barcina Angulo

## Sarriako Jaurerriko ehiza-barrutia isteari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Sarriako Jaurerriko ehiza-barrutia isteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 7a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas de Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Sarriako Jaurerriko ehiza-barrutia isteari buruz idatziz erantzun diezaizoten egindako galdera dela eta, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak ondoko erantzuna ematen dizu:

1. Aipatu itxitura edo hesiak ba al du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren baimenik?

Lurraldearen Antolamendu eta Ingurugiro Zuzendari Nagusiak martxoaren 21eko 572/1995 Ebazpenaren bidez baimena eman zuen Señorío de Sarría, S.A.k Garesen duen finka, landa sare-mailaz ixteko.

Baimena eskatutako baldintzen arabera eman zen. Baldintza horiek ondokoak dira, Garesko Udalak emandako lanetarako udal lizentzian azaltzen denez:

“2 metro altu izanen duen sare-mailazko itxitura, metalezko habeek eutsia, batetik bestera 5-6 metro daudela, eta lerroan 5.100 metro luze izanen duena. Aipatu itxitura finka zeharkatuz egingen da, 14. alorretik hasita, Gorrazingo dermioan, 29. alorrera bitartean, Ekoiengo dermioaren hasiera.”

2. Ingurugiro eragina dela eta, zer alde bene-tazkori antzematen dio Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ehiza barrutiaren baitan ezin ehiza daitekeen basa faunaren joan-etorri askea ahalbidetzeko baldintza betetzen ez duen sare batekin egindako ehiza-hesi edo itxituraren eta ehiza-barruti batekin bat datorren landa-finka baten itxitura, itxituraren barruko aldean ezin ehiza daitekeen basa faunaren joan-etorri askea ahalbidetzen ez duenaren artean?

Landa sare-mailazko itxiturek ez du ezinbestez oztopatzen basa-faunaren zirkulazioa, ez eta, ondorioz, ingurugirorako kalte nabarmenik sortzen ere. Hori guztia itxituraren ezaugarrien menpe egonen da, eta batez ere, itxitura hori jartzen den lekuaren eta bioaniztasunaren berezko ezaugarrien menpe.

Bestalde, ehiza-hesi edo -itxiturek xede bera dute, hau da, finka jakin bat hesitzea edo ixtea bertan espezie batzuen ehiza probetxamendua egiteko, batez ere ehiza larriko espezieena. Xede horrek berak berarekin dakar ez kaltetzea itxituraren amaierako helburua ez diren beste espezie batzuen zirkulazioa. Horrexegatik, hesian derrigor eskatzen dira argi-zabalerako gutxienezko neurri batzuk, izan ere horrela bermatzen delako aurrei-

kusitako espezieen ehiza ez kaltetzeaz batera, gainerako espezieak ere aske mugitu ahal izatea.

Azaldukoaz gainera, Sarriaren kasu zehatzean, eskatu eta baimendu den itxituraz ez zen aipatzen ehiza hesia izanen zenik, eta hortik heldu dira gero ingurugirorako arazoak.

3. Sarriako Jaurerriko ehiza-barrutiak ba al du ehiza antolatzeke planik, bertako ehiza arautzeke? Baiezkoan: Noiz onartu zuten? Zer baldintzatan eta zer espeziatarako arautu eta antolatzen da ehiza aipatu ehiza-barrutian?

Sarriako Jaurerriko ehiza barrutia (NA-10.045) 1992ko abuztuaren 17an hasi zen Ehiza Antolatzeke Plana izapidatzen. Espedientea, dokumentu berriak aurkeztea derrigortzen zituen zenbait administrazio jarduketara egin ondoren, 1997ko

maiatzaren 23ko Ebazpenarenarekin bukatu zen, hain zuzen ere, Antolamendu Planaren onespenerekin.

Aipatzekoa da, administrazio jarduketara osoan zehar eta E.A.P.ren onespenera bitartean, NA-10.045 ehiza barrutian ehizaldi gutxi batzuk baizik ez direla egin, beti ere aurretik baimenduak nekazaritza-laboreetan egindako kalteak ebitatzeko egin direlako.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 30ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria, Yolanda Barcina Angulo

## **Cortes ondoko Gallurren hondakin likido pozoitsu eta arriskugarrientzako errauskailua jartzearen ingurugiro eraginari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak Cortes ondoko Gallurren hondakin likido pozoitsu eta arriskugarrientzako errauskailua jartzearen ingurugiro eraginari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 7a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Ezker Abertzalea” Parlamentari Taldeko Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak Cortes ondoko Gallurren (Zaragoza) hondakin ur industrialen tratamendu termikorako planta bat jartzeko proiektuari buruz idatziz erantzun diezaioten egindako galdera dela eta, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak ondoko erantzuna ematen dizu:

1. Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak ba al daki Nafarroako herri batetik gertu dagoen eskualde batean goian aipaturiko moduko errauskailua jartzeko asmoa dagoela?

Hala bada, Departamentu horrek azterketa edo kontsideraziorik egin al du aipatua bezalako instalazioa ezartzeak Gallurretik hurbilen dauden Nafarroako herritarren osasunean, epe labur, ertain eta luzean, izan ditzakeen balizko eraginei buruz?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak badaki Tratamiento Térmico de Aguas S.A. (TTA S.A.) enpresak “Planta de tratamiento térmico de aguas industriales-cogeneración de electricidad y reciclado de plástico” izeneko proiektu bat aurkeztu zuela Gallurko Udalean, 1995eko otsailean.

Gallurko Udalak Aragoien oraindik indarra duen RAMINPak aurreikusitako izapideak egin zituen, eta Zaragozako Lurraldearen Antolamendurako Batzorde Probintzialak 1996ko ekainaren 13an proiektuaren aurkako espedientea egin zuen, proposatutako tokiak ez zuelako RAMINPek ezarritako gutxieneko distantzia errespetatzen, hau da, 2.000 m hirigunetik.

Gero, 1996ko urriaren 24an enpresak beste leku bat proposatu zuen jarduera hori paratzeko. Leku berri horrek nekazaritza lurzoruen kalifikazioa dauka, beraz, Gallurko Udalak aldi berean izapidatu ditu Lurraldearen Antolamendurako Batzorde Probintzian arauak aldatzeko hirigin-

tza-espeditentea eta jarduera ezartzeko espeditentea.

Bi espeditente berri horien izapidaketaren aurrean, Aragoiko Diputazio Nagusiaren Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritza Nagusiak ebazpen bat eman zuen bi espeditenteak batera jartzeko; aldi berean, Udalari dokumentazio osagarria eskatzen zion aurrena hirigintza-espeditentea ebazteko eta hurrena jarduera horren ezarpena baloratzeko. Zehazki, Barne Erreformatarako Plan Berezi bat (BEPB) aurkezteko errekeritu zaio, hasieratik aurreikusi zen arauaren aldaketaren partez.

Gainera, Lurraldearen gaineko Eraginari buruzko Deklarazio bat aurkezteko ere errekeritu zaio, hori baita Aragoiko hirigintza legediak aurreikusten duena.

Errekerimendua 1997ko apirilaren 10ean egin da.

Gero, enpresak Gallurko Udalari jakinarazi dio ez duela espeditente hori tramitatzen jarraitu nahi; beraz, hemendik gutxira, jarduera horiek artxibatuko dira.

Prozesuari berari buruz, hondakin ur industriak errauskailu lurrintze-erraustean datza. Errauskailuak erabiltzen den erregaia gas naturala da. Sustatzaileak ez du zehaztu zein hondakin ur tratatu behar diren, baina baztertu du ur hondakin toxiko edo arrikutsutzat hartzen diren ur industriak tratatzea.

Horrexegatik ez da eskatu ingurugiroko eraginari buruzko azterlan bat aurkezteko.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 6an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria, Yolanda Barcina Angulo

## Fiteroko monastegiko liburutegi zaharraren hondamenari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Fiteroko monastegiko liburutegi zaharraren hondamenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 7a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Miguel Ángel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentari jaunak Fiteroko Monastegiko liburutegi zaharrari buruz egindako galdera dela eta, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak ondokoa adierazten du:

1. Bai. Nafarroako Gobernuak teknikiari izan ziren, hain zuzen ere, egitate horiek gertatu ziren tokian aurkeztu ziren lehenbizikoak. Berehala hasi ziren eraistearen zergatiak aztertzen, Fiteroko Udalak lan horietarako kontratatutako arkitektuzentzailearekin batera. Fiteroko Monastegiko

liburutegiaren hondamenari buruzko lehen txostena erantsi da.

2. Oraindik ez da inguruabar hori baloratu, izan ere hondakinak ateratzeko plan bat besterik ez baita egin, lanen arkitekturekin batera, erabakirik egokiena hartzeko datu ahal den eta gehien lortu ahal izateko. Era berean, zutik gelditu eta pertsonendako eta monumenturako arrisku larria izan ditzaketan aldeak botako dira. Modu berean jardunen da, eta geratzen diren elementuak dokumentatuko dira balizko zaharberritze lan bat egiteko.

3. Ez dugu alderdi hori ezagutzen, izan ere dirulaguntza hori Fiteroko Udalak berak zuzenean kudeatu zuelako. Badiruri dirulaguntza hori Kulturarako % 1eko fondoetatik heldu dela eta pentsatzen da etorkizunean ere fondo hori jasotzen jarraituko dela. Dena den, aipatu den bezala, fondo horiek Fiteroko Udalak berak kudeatu zituen, eta bera izan zen lanetako alderdi kontratatzailea.

4. Printzipioz ez. Dena den, hori gerta litekeen denez, bai abade-etxea, bai monastegiaren klaustroa bera, eta bai bide publikoko pertsonak

kaltetu ditzaketen elementuen eraisketa kontraltua egiteko plana burutuko da.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-

tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## “Clara Programa”ren merkataritza sustapenari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Clara Programa”ren merkataritza sustapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 7a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Clara Programa”ren merkataritza-sustapenari buruz José Javier Sánchez Turrillas, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari Jaunak idatziz erantzun dakion eginiko galderari ihardetsiz, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak honako erantzun hau bidaltzen du:

Intervaceko Zuzendaritza Batzordearen aginduz, Kontrolaturiko Behikiaren Kontseilu Arauemailea eratu da, CLARA Programa garatzeko.

Kontseilu Arauemaileak Kontrolerako Erregelamendua onartu du, eta azken honen xedeen artean CLARA Programak bultzatzen duen Label-aren logotipoa erabiliz merkataritza-sustapenerako ekin-tzak burutzea aurkitzen da.

Jasotako informazioaren arabera, sustapen-kanpainak egin dira telebistan eta “Hola”, “Semana” eta abarren antzeko aldizkarietan. Gainera, maila autonomikoan ere sustapenak egitea aurrerikusten da, programaren ezarpena ez baita uniformea.

Aipaturiko Erregelamenduak honako baldintza hauek ezartzen ditu ekoizleei dagokienez:

1.- Txekorranjek bete beharreko baldintzak.

1.1.- Kontrolaturiko Behikiaren Ekoizpen Programako kide izan nahi duten okeletarako txekorranjen jabeek behi-aziendaren gizengarria zuzen prestatzeko derrigorrezko diren gutxienezko baldintzak bete behar dituzte.

1.2.- Programari atxikitzeke eskaera behin betirako onartu aurretik, kontrolerako organismoak establezimenduaren auditoria tekniko bat egingo du, bertako egitura eta maneiu-praktikak kalifikatzeko.

Oniritzi horren ondoren, Kontrolaturiko Behikiaren Kontseilu Arauemaileak abeltzainaren atxikipen-eskaera onartu egingo du.

1.3.- Programari atxikiriko granjek uneoro azien-daren maneiorako praktika egokiak mantenduko dituzte: txekorrak krudeltasunik gabe tratatzea, behar adina toki, ur eta elikadura edukitzea, ingurugiro-baldintzekiko errespetuz jokatzeko eta arlo honetan indarrean dauden arau guztiak betetzea.

1.4.- Erraz identifika daitezkeen eta abeltzaintza-ustialeku berean kokaturik dauden beste instalazioetatik argi eta garbi aldenturik dauden gizendegiak bakarrik onartuko dira Programan.

Identifikaturiko eta programari atxikiriko txekorranjetako bakoitzean, era berean banaka identifikaturik eta programari atxikirik dauden txekorrak soilik eduki ahal izango dira, eta programari ez atxikiriko beste txekorrekin ezingo dira inola ere nahastu.

Granjek lurralde espainiarrean kokaturik egon behar dute.

2.- Hautagarri diren behi-aziendako abereak.

2.1.- Programaren bamean sartzeko, okeletarako egoki diren arrazetatik eta hauen gurutzatzeetatik eratorritako txekorrak soilik izango dira hautagarri.

Esneterako arrazak programatik espreski kanporaturik geratzen dira.

2.2.- Zirkulazio askeari abere-osasunarekin zerikusia duten arrazoieta oinarrituriko murrizketarik ezarri ez dioten area edo erregioetakoak izango dira txekorrak, eta egoki den identifikazioarekin hala nola osasun-gidarekin edo jatorria adieraziko duen dokumentazio ofizialarekin sartu beharko dituzte beti ustialekuan.

2.3.- Inskripzio-unetik hiru hilabete baino gutxiago igaro direlarik hil dituzten txekorrak programatik kanporatuak geratzen dira.

2.4.- Lurralde espainiarrekoak ez diren eta abere-osasunean oinarrituriko murrizketak dituzten lurraldeetako txekorrak programatik kanporatuta geratzen dira.

### 3.- *Aziendaren identifikazioa.*

3.1.- C.L.A.R.A. Programan inskribaturiko txekor guztien identifikazio-zenbakiak granjara iristen direnetik hilabete bat igaro aurretik Idazkaritzari jakinarazi beharko zaizkio, eta Granjako Erregistro Liburuan inskribatu beharko dira.

Granjako liburuan honako hauek adierazi beharko dira: osasun-gidako erreferentziak, txekor bakoitzaren banakako identifikazio-zenbakia, jatorria, arraza, sexua, gutxi-gora-beherako pisu eta adina, eta, granjaren barnean zenbait gizen-degi baldin badaude, zehazki zein egokitu zaion.

3.2.- Bureau Veritas-ek, kontrolerako organismo gisa jardunez, aurreko datuen zuzentasuna egiaztatuko du bisita bakoitzean, eta egoki den informazioa bidaliko du Idazkaritzara.

3.3.- Txekor-sorta bakoitza Programan inskribatzeko eskaeran txekorren banakako identifikaziorako belarritakoaren zenbakia adieraziko da. Behin betiko inskripzioa lortzeko, buru bakoitzeko egingo den ekarpena azalduko duen faktura bidaliko da.

3.4.- Banakako identifikaziorako belarritakoa galdu edo narriatuz gero, abeltzainak horren berri emango die Idazkaritzari eta Kontrolerako Organismoari. Bureau Veritas-eko pertsonalak bakarrik ezarri ahal izango die txekorrei beste identifikazio-zenbaki bat duen belarritako berria, eta pertsonal horrek bakarrik baliozkotu ahal izango du, honela, txekorraren inskripzioa programan.

3.5. Abeltzainak gertaturiko bajak eta hauei dagozkien identifikazio-zenbakiak bai Idazkaritzari bai Bureau Veritas-i jakinarazteko obligazioa du. Baliogabeturiko belarritakoak Kontrolerako Organismoaren esku geratuko dira, deuseztuak izan daitezten.

3.6.- Belarritakoek edozein manipulazio edo anormaltasun nabarmen agertzen baldin badute,

gero kanalei ez zaie egiaztapen-agiririk emango, eta kontseilu arauemaileak arau-hauste hori ekoizlea programatik kanporatzearekin zehatuko du, dagokion informazio-espeditentea ireki eta egoki diren alegazioak entzun ondoren, inolako kalteordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

3.7.- Txekorra hiltegiara garraiatzen den bitartean identifikazio-belarritakoa galtzen baldin bada, ezingo zaio logoa duen etiketa jarri, eta kanalari ere ezingo zaio kontrol-marka jarri.

### 4.- *Aziendaren elikadura eta osasun-tratamenduak.*

4.1.- Aziendari emandako elikagaiek eta aplikaturiko osasun-tratamenduek gutxienez indarreango legezko xedapen guztiak bete beharko dituzte, bai Estatukoak bai Europako Batasunekoak.

4.2.- Guztiz debekatua dago hazkuntza eragiten duten hormonazko produktuak edo debekaturiko edozein sustantzia aplikatu edo ematea.

4.3.- Elikagaiei ezingo zaie okelezko edo hezurrezko irin, gazur edo bukaerako produktuari zapore edo usain arraroa emango dion produkturik erantsi.

4.4.- Kontrolerako Erregelamendu hau garatzeko xedapen berriak onartu bitartean, balizko kutsadura mikrobiologikoa eta elikadura-aberastasuna aztertzen duten kalitate-kontrol egokiak gainditu dituzten zereal eta leguminosoak erabilitea gomendatzen da.

4.5.- Era berean, Programari atxikiriko abeltzainei zera gomendatzen zaie: erosten dituzten pentsu eta zuzentzaileen kalitatea kontrolatzeko neurri egokiak har ditzatela, debekaturiko sustantziak horien bidez beren ustialekuetan sar daitezten ekiditeko.

4.6.- Programan inskribaturiko txekorrei egingako osasun-tratamenduak, banaka zein produktio-sortaka, Granjako Liburuan adieraziko dira.

Tratamendu horien kentzea ere adierazi egingo da.

Bureau Veritas-ek aurreko datuen zuzentasuna eta dosi, helburu eta kentze-aldiei buruzko agindu teknikoak errespetatzen direla egiaztatuko du.

### 5.- *Kontrolerako laginen hartzea granjetan.*

5.1.- Egoki den identifikazio-agiria erakutsiko duten Bureau Veritas-eko ikuskatzaileei bere granjan sartzen utziko die abeltzainak.

5.2.- Kontrolerako Organismoak programari atxikitako txekor-granjetan laginak hartuko ditu,



aurretiaz ezarritako zorizko metodoaren arabera eta egoki deritzon maiztasunaz.

5.3.- Gizendegietako laginak gizendegi guztietako eta programan inskribaturiko txekor guztien pentsu, zuzentzaile, ur, gernu, odol edo iletik hartu ahal izango dira.

5.4.- Lagin-hartze bakoitzean, Kontrolerako Organismoak informazio-akta bat egingo du, nahitaez granjaren jabeak edo bertako arduradunak sinatu beharko duena, eta bertan data, laginkopurua, lagin-mota eta txekor bakoitzaren banakako identifikazioari eta laginak hartu diren gizen-degiari dagozkion datuak konstaraziko dira.

5.5.- Jasotako lagin guztiak Bureau Veritas-en esku geratuko dira. Honek, kontrataturiko Kontrolerako Laborategi Independentetako batera (Biotech, Mapa, Cenam) igorriko ditu, kode sekretu batekin.

5.6.- Laginen batek Laborategian emaitza positiboa emango balu, Kontrolerako Organismo pertsonala berriro granjara joango da, laginkopuru haundiago bat hartzeko, eta aparteko egoeraren berri emango die abeltzain eta Idazkaritzari. Une horretatik aurrera, okelak ezin go dira kontrol-egiaztapenarekin ez etiketatu ezta zigilatu ere.

Kasu honetan, hiruna lagin hartuko dira. Zigilatu egingo dira, eta bata abeltzainaren eskuetan geratuko da, bestea Bureau Veritas-en eskuetan, eta gainontzekoa berriro Laborategira igorriko da.

5.7.- Kontrolean zehar izandako jazoera orori buruz informazio-espeditente bat egingo du Bureau Veritas-ek, eta beronen kopia bat Idazkaritzara bidaliko da.

Abeltzainak alegazioak egin ahal izango ditu Kontrolerako Organismoaren aurrean, eta Idazkaritzak kontrataturiko Laborategietan egiaztatze-analisiak dohain egin daitezela eskatu, edo berak hautatutako beste Laborategi batean eta bere kontura, analisi ebazleak.

5.8.- Emaitza positibo bat frogatuz amaitzen diren espeditenteek abeltzaina Programatik behin betirako egozteka ekarriko dute ondorio gisa, inongo kalteordainik jasotzeko eskubiderik gabe, eta Idazkaritzak Kontseilu Arauemaileari gertatutakoaren berri emango dio.

Kontrolerako Erregelamenduaren urrapen-mota honi dagokionez, ez dago Kontseilu Arauemailearen aurrean alegatu edo apelatzeko eskubiderik.

5.9.- Kontseilu Arauemaileari aldizka zorizko laginketen planaren, jazoera-kopuruaren eta laginketen emaitzen berri emango zaio, baina

lagin-hartze plan zehatzen datuak jazoerei buruzko prozedurak bideratzen direnean bakarrik jakin ahal izango dituzte Bureau Veritas-ek eta Kontrolerako Programako Idazkaritzak.

#### *6.- Abereen ongizatea.*

6.1.- Bai granjan dauden bitartean bai hiltegi garraiatzen dituzten bitartean ere txekorrek beren ongizatea errespetatuz maneiatzeari buruzko Estatuko zein Europako Komunitateko indarreango legezko xedapen guztiak erabat errespetatuko dira.

6.2.- Instalazioek argi egokia, txekor kopuruaren arabera behar adina leku, bazkaleku zabalak eta ur ugari edukiko dute.

6.3.- Txekorrek sexuaren arabera bereizita egongo dira eta haien arteko borroka ekidin egingo dira.

6.4.- Kontrolerako Organismoak egiaztatuko du ea aurreko baldintzak behar bezala betetzen diren.

Erregelamenduak hiltegiei eta zatikatze-gelei ezartzen dizkien baldintzak honakoak dira:

#### *7.- Hiltegi eta zatikatze-gelen baldintzak.*

7.1.- Programan sartu nahi duten hiltegi eta hauei erantsiriko zein autonomoak diren zatikatze-gelek beteko dituzten betebeharrak tekniko eta osasunekoak beren produktuak Europako Batasuneko lurralde osoan merkaturatzeko homologaturiko instalazioei galdatzen zaizkien berberak izango dira.

Espaniar lurraldean egongo dira kokatuta.

7.2.- Programari atxikitze eskaera bakoitzari Asocarne, Fecic edo Nafric Cgremsa-k luzaturiko ziurtagiri bat gehituko zaio, bertan bere Osasun Erregistroko Zenbakiari eta establezimenduak Europako Batasunaren baitako merkataritzarako duen baimenaren baldintzei buruzko datuak jasoz.

7.3.- Programari atxikiriko hiltegi eta zatikatze-gelek uneoro indarreango legezko xedapenak galdaketa-mailarik altuenean beteko dituzte, eta modu bereziki zorrotzean kontrolatuko dute abereak odolik isuri gabe hiltzeari buruzko arauak bete egiten direla.

7.4.- Hiltegi eta zatikatze-gelek beren pertsonalarentzako hainbat heziketa programa burutuko dituzte: higiene eta osasunari buruz, hala nola identifikazio eta jarraigarrtasun kontzeptuei buruz, eta Programaren logoak babesturiko merkantzien kontrolei buruz.

#### *8.- Hiltegioko okelaren jarraigarrtasuna.*

8.1.- Programan inskribaturiko txekorrek egoki den osasun-dokumentazioarekin iritsiko dira hilte-



gira; dokumentazio horretan abeltzainaren datu pertsonalak, jatorrizko granja eta txekor bakoitzaren identifikazio-zenbakiak zehaztuko dira.

Osasun-dokumentazio horretan ez da Programan inskribatu gabeko txekorrik sartuko.

8.2. Erregistraturiko txekorrek bereizturiko eskortetan jarriko dira, Programan inskribatu gabeko beste txekorrek ez nahastuz.

Hil aurretik, txekorrek atsedean hartuko dute, granjatik garraiatzeak iraun duenaren arabera izango den denbora batez. Txekorrek dutxatu egingo dituzte ere, beren lasaitzeari laguntzeko.

8.3.- Erregistraturiko txekorrek Kontrolerako Programan inskribatu gabeko beste txekorrenak direnetatik erabat bereizturiko sorta osoka hilko dituzte.

Sorta bakoitzaren barruan, abereak identifikatzeko zenbaki bakoitzari hilketa-zenbaki korrelatibo bat esleituko zaio.

Kanalari eta hondakinei hilketa-zenbaki berbera esleituko zaie, "post mortem" albaitaritza-ikuskapen ofiziala amaitu bitartean.

Hilketa-zenbakia aldatu gabe mantenduko da hilketa-prozesu guztian zehar, eta ez da aldatuko eguraste-, errefrigerazio-, heltze- eta ondorengo merkaturatze-prozesuetan. Kanal-laurden bakoitzari ere zenbaki berbera esleituko zaio.

8.4.- Idazkaritzak hilabetero behar adina Kontrolerako Etiketa bidaliko ditu hiltegi bakoitzera. Kontrolerako Etiketak seriatuak egongo dira, eta Kontrolaturiko Behiaren Kontseilu Arauemailearen logoa inprimatua edukiko dute. Kanal-erdi bakoitzaren laurdenei pisatu eta sailkatzeko unean erantsiko zaizkie.

Kontrolerako Etiketa bakoitzean datuok azalduko ditu hiltegiak: hilketa-zenbakia, abeltzain-zenbakia eta kanalaren kategoria, sailkapena eta koipeztapen-maila. Datuok nahitaez A (arrak) edo B (emeak) izango dira: "S.E.U." eta "R" eta 2 edo 3, hurrenez hurren. Halaber, egurastearen aurretik kanal-erdiak duen pisua eta hilketa-data jasota utziko dira.

Kontrolerako Etiketak birrerabilgarriak izan ez daitezten diseinatuko dira. Atzeko eta aurreko laurdentarako etiketak bereiztuta egongo dira.

8.5.- Okelaren eguraste- eta egonkortze-prozesuaren ondoren, kanal-laurdenak Programaren logoarekin zigituarekin markatuko dira.

Zigilu hau helburu horretarako bereziki diseinatuturiko arrabol baten bidez ipintzen da. Zinta-tanke-

rako zigilu ugariak bizkar-hezurrarekiko modu paraleloan jarriko dira.

Erabili beharreko tintak osasun-ikuspegitik onartuak egongo dira, eta HT/E 155 marroia eta FCC/E133 urdin distiratsua nahastuz lortutako kolore marroikoak izango dira.

Programaren logoa azaltzen duen zigilua ez da jarriko, Kontrolerako Etiketak kendu egingo dira eta ez da ezein ziurtagiririk emango kontrol analitikoetan jazoeraren bat agertzen baldin bada. Txekorrei Albaitaritza Ikuskapen Ofizialeko zerbitzuek Susmagarrien Protokoloa aplikatu baldin badiete, zigilurik ez zaie jarriko ere. Hondakinen lkerketarako Plan Nazionala aplikatuz abere eta okel freskoen laginak hartzean, hiltegiak lagin osagarriak hartuko ditu eta Kontrolerako Organismora igorriko ditu.

8.6.- Azken salmentarako puntu batera eginiko merkatal bidalketa bakoitzean, Berme Ziurtagiri bat erantsiko da, bertan honakoa jasoko delarik: ziurtagiriak babesturiko kanal-laurden guztien hiltegiaren izena, bezeroaren izena, jatorrizko granja kokatua dagoen probintzia, abeltzainaren zenbakia, hilketa-zenbakia, pisua, kategoria, merkatal sailkapena eta bidaltze-data. Berme Ziurtagiriak zenbakia izango dute, eta aldizka kolorez aldatuko dira.

8.7.- Hiltegitik ondoko zatikatze-gelara edo Programan inskribaturiko zatikatze-gela autonomotara eginiko merkantzia-garraio bakoitzean, azken salmenta-punturako Berme Ziurtagiriak egin ahal izateko beharrezkoak diren datuak erantsiko dira.

8.8.- Hiltegiko jarraigarritasun-prozesu guztia Hiltegiko Erregistro Liburuan jasoko da.

Hiltegiko Liburuan datuok agertuko dira: jatorrizko granjaren datuak, osasun-gidaren zenbakia, abere bakoitzaren identifikazio-zenbakia eta hiltegi-ordenaren zenbakia, hilketa-data eta kanal bakoitzaren kontrolerako etiketa seriatuaren zenbakia.

Baita ere, Bureau Veritas-eko ikuskatzaileek edo hiltegiko pertsonalak berak Kontrolerako Organismoaren aginduak jarraituz kontrol analitiko egiteko ea laginak hartu diren azalduko da, eta ea jazoeraren bat gertatu den ere bai.

Azkenik, Hiltegiko Liburuan kanal-laurdenen merkatal helmuga, gako baten bidez, eta erabilitako Berme Ziurtagiriak azalduko dira. Halaber, bertan industrialki eraldatuak izateko zuzenduta edo industrialki eraldatuak izateko merkaturatuta daudenak zer motatako merkantzia eta/edo aurreko laurden diren adieraziko da.

8.9.- Hiltegi bakoitzak hilerro informazioa bidaliko du Idazkaritzara. Hemen, Hiltegiko Liburuko datuak, kontrolerako etiketen hasierako eta amaierako stock-ak, etiketa gehiagoren eskaera, merkatal helmugen gakoan gaurkotzea eta finantza-kitapenak egiaztatuko dira.

*9.- Hiltegiak kontrolatzeko eragiketak.*

9.1.- Programan inskribaturiko hiltegi guztiek Bureau Veritas-eko ikuskatzaileei beren establezimenduan sartzen utziko diete, beharrezko jotzen dituzten auditoria, egiaztapen eta kontrol analitiko-etarako lagin-hartze guztiak egin ditzaten.

9.2.- Kontrol analitikorako laginak gihar, behazun, gibel, giltzurrun, humore bitreo, gernu, odol edo iletik hartu ahal izango dira. Laginak zuzenean Bureau Veritas-eko ikuskariak hartuko dituzte, edo, hauek hautaturik, hiltegiko bertako pertsonalak, Kontrolerako Organismoak aurretiaz ezarritako zorizko laginketa-planei jarraituz.

9.3.- Kontrol analitikorako laginen gain hilketa-zenbakia adieraziko da eta Bureau Veritas-era bidaliko dira; honek, era berean, bere aukerako Laborategi batera identifikazio-gako itsu batekin bidaliko ditu.

9.4.- Laginen kontrolean jazoeraren bat gertatzekotan, ez da Berme Zigilua jarriko okelen helitze-prozesuaren amaierako fasean, eta lau laurdenei jarritako etiketak kendu egingo dira. Laurdenak Bureau Veritas-en esku geratuko dira, honek suntsi ditzan eta jazoerari buruzko oharra Hiltegiko Erregistro Liburuan idazteko.

*10.- Okelaren jarraigarritasuna zatikatze-gelan.*

10.1.- Programak babesturiko kanal-laurdenak zatikatze-eragiketarako Programaren barnean ez dauden okeletarako erabiltzen diren lan-mahaiak ez diren beste batzuetan, edo beste une batzuetan egingo dira, erabilitako lehengai ezberdinen edo horien amaierako produktuen artean nahasketarik gerta ez dadin.

10.2.- Lanegun batean zehar zatikatze-gelan hartutako kanal-erdi guztiek harrera-sorta bat edo batzuk osatuko dituzte.

Harrera-sorta lanegun batean jasotako merkantzia guztiek osatua eta harreraren dataekin identifikatua egon ahal izango da.

Lanaldi batean zehar hartutako merkantziak tamaina txikiagoko sortetan zatitu beharko dira hiltegi ezberdinetatik baldin badatoz, edo hiltegi beretik, baina bereizturiko bidalketetan.

10.3.- Harrera-sorta bakoitza Idazkaritzak horretarako utziko duen Zatikatzegelan Erregistro Liburuan idatziko da.

Kanal-laurdenak zatikatzerakoan, Kontrolerako Etiketak kendu eta bereizirik gordeko dira.

Gelako liburuan zera adieraziko da: atzeko eta aurreko laurdenak zer motakoak eta zer kopurutan jaso diren, hala nola harrera-sorta bakoitzari dagozkion Kontrolerako Etiketak gordeko dituen artxiboaren identifikazioa.

Gelako Liburuan harrera-sorta bakoitzaren pisua ere adieraziko da.

10.4.- Okelen eguneroko zatikatze eta/edo xerratze eragiketen ondoren, prestaturiko aleen kopurua eta guztirako pisua ere adieraziko da Liburuan, xerratzerako bideraturiko aleen dagokienez ezik.

10.5.- Eguneroko xerratze-eragiketen ondoren helburu horretara zuzenduriko ale-kopurua eta haien guztirako pisua adieraziko dira Liburuan.

10.6.- Idazkaritzak finkatuko du, metaturiko esperientzien arabera, zeintzuk izango diren onar daitezkeen produkzio-murrizketa portzentualak.

10.7.- Merkataritzarako gai den pieza bakoitzaren gainean marka-euskarri bortxaezin eta birrerabiltezin bat jarriko da, osasun-ikuspegitik onarturiko materialezkoa eta Programaren markako logoarekin.

10.8.- Ontzi bakoitzaren gainean, erretilua, poltsa, ontzi uzkurgarria zein hutsekoa izan, eta barnean pieza bat ala gehiago eduki, Idazkaritzak emandako Kontrolerako Etiketak itsatsiko dira. Kontrolerako Etiketa hauek Programaren markaren logoarekin seriatuak egongo dira.

Egunetik egunera seriearen ordena korrelatiboa galdu gabe ipiniko zaizkio etiketak ontzi bakoitzari.

10.9.- Xerraturik dauden edo antzeko aurkezpena duten produktuen erretilu bakoitzaren gainean ere Kontrolerako Etiketak itsatsiko dira, beren seriearen ordena korrelatiboa mantenduz ere.

10.10.- Liburuan egunero adieraziko dira marka-euskarrien hasierako stock-a, erabilitako marka-euskarriak eta amaierako beren stock-a.

10.11.- Liburuan egunero adieraziko dira etiketen hasierako stock-a, erabilitako kopurua eta amaierako beren stock-a. Haien serie-zenbakiak ere adieraziko dira.

10.12.- Salmenten emate-agirietan eta hauen kopietan Programaren babespean merkaturaturik

ko merkantzien pisuak "CVC" espresioaren bidez espreski adieraziko dira.

10.13.- Programaren babesean pieza eta xerretan guztira merkaturaturiko Kg. kopurua eguneroko adieraziko da Liburuan.

10.14.- Eguneroko, zatikatze-gelek Berme Ziurtasun zentzuzko bat luzatu ahal izango dute haien amaierako bezero bakoitzaren alde, honako konstaraziz: bidalketa-data, bezeroaren izena, hiltegiaren edo zatikatze-gela autonomo hornitzailearen izena, hornituriko piezen edo xerra-erretiluen pisu eta kopurua, eta laurdenen harrera-sorten Kontrolerako Etiketatik argi ondorioztatzen den neurrian, jatorrizko granjak kokatuta dauden probintzia edo probintziak eta kanalen kategoria eta merkatal sailkapena ere adierazi ahal izango dira. Baita ere, salmenta-guneari hornituriko pieza edo xerra-erretilu guztiei itsatsitako Kontrolerako Etiketen zerbaki korrelatiboak zehaztu ahal izango dira.

10.15.- Pieza edo xerraturiko produktuen merkatal helmuga, gako baten bidez, eta erabilitako Berme Ziurtasunaren kopurua adieraziko dira Liburuan.

10.16.- Zatikatze-gela autonomoek hileroko informazioa igorriko dute Idazkaritzara. Bertan, Zatikatze Gelako Erregistro Liburuko datuak, Programak babesturiko merkantziaren hasierako eta bukaerako stock-ak, marka-euskarrien eta kontrolerako etiketen hasierako eta bukaerako stock-ak, marka-euskarri eta etiketen eskaera berriak, helmuga komertzialen gakoaren eguneratzea eta finantza-kitapenak egiaztatuko dira.

#### *11.- Zatikatze-geletako kontrol eragiketak.*

11.1.- Programan inskribaturiko zatikatze-gela autonomo guztiek Bureau Veritas-eko ikuskatzaileei beren establezimenduan sartzen utziko diete, beharrezko jotzen dituzten auditoria eta egiaztapen guztiak egin ditzaten.

11.2.- Zatikatze-gelek eguneratua edukiko dute Programari atxikiriko bezeroen zerrenda; hain zuzen, haiek beren produktuak azken hauei saltzen dizkiete. Halaber, programak babesturiko behikiak saltzen dituzten xehekariak beren obligazioak betetzen dituzten kontrolatuko dute.

#### *12.- Hiltegiei erantsitako zatikatze-gelak.*

12.1.- Jarraigarritasun- eta kontrol-neurriei dagokienez, hiltegiei erantsitako zatikatze-gelek zatikatze-gela autonomoen tratamendu berbera edukiko dute.

12.2.- Hiltegiei erantsitako zatikatze-geletan, informazioa Idazkaritzara bidaltzeari, finantza-kitapenari eta abarri buruzko obligazioak hilketa- eta zatikatze-eginkizunak burutzen dituen pertsona juridiko berberak beteko ditu.

#### *13.- Okel-handizkariak eta zerbitzu-hiltegiak.*

13.1.- Hirugarren pertsonen beren abereak hiltzeko zerbitzua eskaintzen dieten hiltegiek ezagutza hau konstaraziz eskatu beharko dute Programan inskribatuak izan daitezkeen, eta, finantza-kitapenari dagokienean xedatutakoa izan ezik, beren merkantziak zuzenean merkaturatzen dituzten hiltegiei Kontrolerako Erregelamendu honek ezartzen dizkien obligazio berberak bete beharko dituzte.

13.2.- Hiltegiek, aldi berean, beren produktuak zuzenean merkaturatu eta Programan inskribaturiko erabiltzaileei zerbitzuak eskaini ahal izango dizkiete, kasu hauetan finantza-kitapenak, jarraigarritasun- eta kontrol-eragiketak bereiztuz, nola jarduten duten.

13.3.- Okel-salerosle handizkariak, hiltegi baten zerbitzuen erabiltzaile diren neurrian, Programan inskribatuak izatea eskatu ahal izango dute, zerbitzua ematen dien hiltegia -Programan aurretiaz inskribatua egongo dena- zein den konstaraziz, eta, aplikagarri zaizkien neurrian, Kontrolerako Erregelamendu honek hiltegiei ezarritako obligazio berberak beteko dituzte, finantza-kitapenari dagokienean izan ezik.

13.4.- Handizkariak, Programari atxikitzeko beren eskaerarekin batera, beraiek egindako Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren azken urteroko kitapenari buruzko dokumentazio egokia eta osasun-, nekazaritza- edo egoki diren beste erregistroetako inskripzioak ekarriko dituzte.

Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 3a

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

---

**G Saila:**  
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

---

## **Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoen erdi mailako teknikari-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetze-ko deialdia**

### **Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 4an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoen erdi mailako teknikari-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdiaren testua erabaki baten bidez onetsi zuen. Deialdi hori 1997ko ekainaren 9ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean (42.zk.) eta 1997ko ekainaren 18ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (73. zk.) argitaratu zen.

Deialdiaren 4. oinarriak ezarri bezala, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda Parlamentuko Lehendakariaren 1997ko abuztuaren 8ko erabakiaren bidez argitaratu zen 58 zenbakia duen 1997ko abuztuaren 20ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Zerrenda horren aurka, Lucía Ciordia Ruiz Andreak eta Jesús Villanueva Mateo Jaunak erreklamazioa tarteratu zuten abuztuaren 27an, hau da, deialdiko 4. oinarriak ezarritako eta hilaren 25ean amaitzen zen epetik kanpo. Ondorioz, egoki da erreklamazio horiek ez onartzea, epez kanpo aurkeztuak izanagatik. Gainera, erreklamazio gileen alegazioak ez zaizkie deialdiaren oinarrii egokitzen.

Hori guztia dela-eta, egoki da deialdiko onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onestea, eta berau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Beraz, zera ebatzi da:

**1.-** Lucía Ciordia Ruiz Andreak eta Jesús Villanueva Mateo Jaunak eginiko erreklamazioak ez onartzea, deialdiko 4.oinarriak ezarritako epetik kanpo aurkeztuak izanagatik.

**2.-** Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoen erdi mailako teknikari-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda hau onestea:

**Onartuak:** Inor ez.

**Baztertutak:**

CIORDIA RUIZ, Lucía (1) (2)

MACÍAS OTAEGUI, Cristina (1)

PLATERO CASTANERA, Rosa (1) (2)

VILLANUEVA MATEO, Jesús (1)

(1) Baztertutak, deialdiko 2.1.b) Oinarrian galaturiko betebeharrak ez betetzeagatik.

(2) Baztertutak, deialdiko 2.1.c) Oinarrian galaturiko betebeharrak ez betetzeagatik.

**3.-** Zera adierazi behar da: deialdiko 9. Oinarriak ezartzen duenez, onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen egintzaren aurka, interesatuek errekurso arrunta jarri ahal izango dutela Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren aurrean, hilabeteko epean, hura Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

**4.-** Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzea.

Iruñea, 1997ko irailaren 5a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía